

ZERGA IKUSKAPENAREN ARAUDIA

41/2006 Foru Dekretua, ekainaren 6ko Diputatuen Kontseiluarena. Honen bidez, Arabako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Araudia onetsi da.

(ALHAO, 69. zk., 06-6-21ekoa)

Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorra onartzeak zerga arautegia zeharo berritzea eta gaurkotzea ekarri du berarekin, eta horrek egituraren berrikuspena eragin du, bai eta Zerga Administrazioak, bere egitekoak betetzeko, aplikatu beharreko prozedura arauen egituraren berrikuspena ere.

Foru arau horretako hainbat manutan geroagoko garapena aipatzen da eta beste kasu batzuetan xedapen batzuk argitu behar dira edo zergak aplikatzeko prozedura izapideak araupetu behar dira.

Hori dela eta, Arabako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskapenaren Arautegi berria landu da.

Testuak atariko titulua eta titulu bi dauzka, alegia. arau orokorrak; ikuskapen jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak; eta ikuskapen prozedurak eta jarduketak. Horrez gain, foru dekretu honek hiru xedapen gehigarri, xedapen iragankor bat, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bi ditu.

Atariko Tituluan xedea eta aplikazio eremua zehazteaz gain, ikuskatzaileak definitzen dira, ikuskatzaileon egiaztapena arautu eta ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak zerrendatu.

I. tituluak ("Ikuskapen jarduketei eta prozedurei buruzko arau orokorrak") ikuskapen ahalmenak definitzen ditu eta zergapekoek prozedurotan duten esku-hartzea arautu. III. kapituluak osatzen du Zergei buruzko Foru Arau Orokorra ikuskapen jarduketak jasotzen dituzten dokumentuei buruz ezarritakoa. jakinarazpenak, izapideak, txostenak eta aktak. Azkenik, titulu horretako azken kapituluak ikuskapen jarduketan lekua eta denbora arautzen ditu.

II. tituluak ("Ikuskapeneko prozedurak eta jarduketak") ikuskapeneko prozedura eta jarduketak zehatzago arautzen ditu. Egiaztapen eta ikerketa prozedura, egiaztapen murriztuaren prozedura, zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio, prozedura, informazioa lortzeko jarduketak eta betebeharrak formalak egiaztatzeko jarduketak.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik guztiagatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko diputatuaren proposamenez, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATU DUT:

ATARIKO TITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.- Edukia eta aplikazio eremua.

1. Arautegi honek Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako araupeketara osatu eta garatzen du zerga ikuskapenaren arloko ahalak erabiltzeari dagokionez; Foru Aldundiko Zerga Administrazioari aplikatuko zaio.

Halaber, arautegi hau Arabako tokiko erakundeei aplikatuko zaie Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean eta Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen araudian ezarritako moduan.

2. (4) Foru Aldundiak Estatuaren lurralde osoan erabiliko ditu zerga ikuskapenaren arloan dituen eskumenak.

Hala ere, dagokion administrazioko ikuskaritza organoen lankidetzara eskatuko du, Arabako Lurralde Historikotik kanpo egiaztapen eta ikerketa jarduerak egin behar dituenean.

3. (4) Ikuskapen jarduerak zerga administrazioen arteko lankidetzaren bidez egin ahalko dira, ofizioz edo beste zerga administrazio batek eskatuta, bai eta haien artean edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuekin ezarritako akordio, hitzarmen edo beste formula edo bide batzuen bidez ere.

4. (4) Europako Erkidegoko zuzentarau eta erregelamenduetan eta zergapetzebikoitza saihesteko nazioarteko hitzarmenetan informazioa trukatzeko eta elkarri laguntzeko aurreikusitako mekanismoen esparruan, Arabako Foru Aldundiko Zergen Ikuskaritzak ikuskapen jarduerak egin ahalko ditu, beste estatu batzuetako agintari eskudunek eskatuta. Jarduera horietan estatu horietako funtzionarioak egon ahalko dira, Ogasuneko zuzendariak baimena eman ondoren.

2. artikulua.- Ikuskatzaileak.

1. (1) (4) Arabako Foru Aldundiaren eremuan, ikuskatzailetzat hartuko dira Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailean honako lanpostu hauek betetzen dituzten funtzionarioak:

a) Zergen ikuskatzaileak.

b) Zergen ikuskatzailelaguntzaileak.

c) Zerga agenteak.

Era berean, ikuskatzailetzat hartuko dira Zergen Ikuskaritza Zerbitzuari atxikitako funtzionarioak, Informatika Teknikarien lanpostuetan, bai eta Goi edo Ertaineko Mailako Informatika Teknikariak eta izendatutako ikuskapen jarduketara eta prozeduretan parte hartzen duten beste funtzionario batzuk ere; hala, zeregin lagungarriak, osagarriak eta, oro har, informazioa biltzeko eta tratatzeko zereginak bete ahalko dituzte.

2. Dena den, prestatzeko bakarrik diren jarduketak, edo tributuen arloan garrantzitsu diren egitate edo inguruabarrak, egiaztatzeakoak edo frogatzekoak, funtzionario ez diren beste langile publikoei ere ematen ahal zaizkie.

3. Zerga ikuskatzailetzaren berezko eginkizunei dagozkien lanpostuak betetzen dituzten funtzionarioek, lanpostua hartzen duten unetik, dagozkien eskubideak, eskumenak eta ardurak izango dituzte. Horrez gain, ekitaldiari datxekion betebeharrei zein funtzio publikoaren duintasunari egongo dira lotuta, bai eta beren baldintza bereziak ditueni ere.

4. Foru dekretu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, aktuariotzat hartuko da zerga administrazioaren funtzionarioa edo enplegatua, baldin eta ikuskatzailea izanik prozeduraren jarduketaren edo izapideen ardura badu edo bertan parte hartzen badu.

3. artikulua.- Ikuskatzaileen egiaztapena.

1. Ikuskatzaileek txartela edo beste identifikazio agiriren bat edukiko dute euren eginkizunetan aritzeko.

2. Bulego publikoetatik kanpo aritzen direnean, ikuskatzaileek nor diren egiaztatu behar dute eskatzen zaien guztietan.

3. Laidotutako pertsonak eskatuta soilik pertsegitu ahal diren delituen inguruko prozedura zibiletan eta zigor prozeduretan ikuskatzaileek ez dute edukiko lekuko gisa deklaratu beharrik, baldin eta deklaratzeko dekretu edo isiltasun betebeharra hautsi behar badu.

4. artikulua.- Ikuskapeneko jarduketak eta prozedurak.

Hauexek dira ikuskapeneko prozedurak eta jarduketak:

- a) Egiaztapen eta ikerketa jarduketak.
- b) Egiaztapen murriztuaren prozedura.
- c) Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozedura.
- d) Informazioa lortzeko jarduketak.
- e) Balorazio jarduketak.
- f) Betebehar formalak egiaztatzeako jarduketak.
- g) [\(1\)](#) Egiaztapen mugatuaren prozedura.

I. TITULUA

IKUSKAPEN JARDUKETEI ETA PROZEDUREI BURUZKO ARAU OROKORRAK

I. KAPITULUA

IKUSKATZAILEEN AHALMENAK

5. artikulua.- Interesdunaren agirien azterketa.

1. Ikuskapen prozedurak eta jarduketak egiteko, aktuarioek beharrezkotzat jotzen dituzten baliabideak erabili ahal izango dituzte; baliabideok Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 136. artikuluko 1. paragrafoan aipatutakoak eta ondoko hauek izango dira:

- a) Interesdunen zerga aitopen guztiak.
- b) Zergapekoaren kontabilitatea; horren barruan kontabilitateko erregistro eta euskarri guztiak, egindako oharren eta ohar horien aurretiazko edo gehigarritzko orrien ziurtagiriak eta zerga ondoreak dituzten kontratuak eta agiriak sartzen dira. Kontabilitateko orriekin batera finantzen informazioa ondo ulertu ahal izateko beharrezkoak diren banakapenak eta iruzkinak aurkeztu behar dira.
- c) Beste pertsona edo erakunde batzuetatik zuzen nahiz zeharka lorturiko datuak edo aurrekariak, zergapekoengan eragina dutenak.
- d) Lankidetzeta betebeharraren ondorioz eta salaketa publikoak direla bide lortzen diren datuak eta txostenak; salaketa publikoetan, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 110. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar da.
- e) Administrazioako beste organo edo erakunde batzuetatik lorturiko informazioa.
- f) Dokumentu, datu, txosten eta aurrekariak.

2. [\(1\)](#) Aktuarioek zuzenean aztertu ahal izango dituzte artikulua honetan aipaturiko agiriak eta gainerako elementu guztiak eta, behar izanez gero, euskarri informatikoetan artxibatutako zerrendak pantailan bistaratzeko edo inprimatzeko galdatu ahal izango dute.

Halaber, beharrezkotzat jotzen dituzten kontabilitateko oharkiak eta egoki iritzitako gainerako datu guztiak idatzi ahal izango dituzte eta artikulua honetan aipatutako datu eta agiri guztien kopiak eskuratu ahal izango dituzte, edozein euskarri eta formatutan, aktuarioek hautatzen duten eran, are euskarri informatikoan ere, euren kargura.

3. Aktuario batek zergapeko bati eskatzen badio Zerga Administrazioak duen dokumentazioan edo bere aitordenetako frogagiritan edo haietan adierazitako egitate edo inguruabarretan ageri ez diren datuak, txostenak edo bestelako aurrekariak aurkezteko, hamar eguneko epea emango zaio, gutxienez, lankidetzeta betebeharra betetzeko. Nolanahi ere, ikuskapen prozedura berean lehen ere datu, txosten edo aurrekariak aurkezteko agindeia egin bazaio, epe laburragoa eman ahal izango zaio aurkezteko.

6. artikulua. (2) Finketan sartzea eta aztertzea.

1. Aktuarioak zergapeko jarduerak edo ustiapenak egiten diren finketan, zergapeko subjektuak dauden finketan, zerga gaiak gertatzen diren finketan eta horrelakorik gertatu delako frogak dauden finketan, negozioko lokaletan eta establezimendu zein tokietan sar daitezke jarduketak egiteko eta, bereziki, interesdunen ondasunak, bulegoak, instalazioak edo ustiapenak ezagutzeko, eta beharrezko froga jarduketa guztiak egin ahal dituzte.

2. Interesdunek beren bulegoetan sartzan utzi behar diete aktuarioei; bulegoan Zerga Administrazioaren esku eduki behar dituzte negozioaren kontabilitatea eta hari buruzko gainerako agiri eta frogagiri guztiak, enpresaren eguneko lanaioan.

3. Finkan edo lokalean enpresa edo lanbide jarduerarik egiten ez bada eta interesdunak edo 1. idatz zatian aipatzen den tokia zaintzen duen pertsonak ez badie sartzan uzten aktuarioei, Ogasuneko zuzendari nagusiaren baimena behar da sartzeko eta aztertzeko. Nolanahi ere, horrelako kasuetan bidezko kautelazko neurriak har daitezke.

4. Ikuskapenerako beharrezkotzat jotzen bada Konstituzioaren babespean dagoen zergapeko baten egoitzan sartzea edo egoitza miatzea, zergapekoaren adostasuna edo epailearen baimena lortu behar da.

Ogasuneko zuzendariak bidali behar dio baimen eskaera jurisdikzio organoari. Horretarako, eskaera eragiten duen ikuskatzaileak txostena idatziko du sarrera edo miaketa egin beharra frogatzeko, eta Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruak ontzat eman beharko du.

Epaileak nonbait sartzeko eta arakatzeko baimena emanaz gero, ikuskatzaileek beharrezkotzat jotzen dituzten kautelazko neurriak aplikatu ditzakete.

Sartu eta miaketa amaitutakoan, baimena eman duen jurisdikzio organoari zer gertatu den eta emaitzak nolakoak izango diren azalduko zaio.

5. Artikulu honetan xedatutakoari dagokionez, zergapekoak edo finka zaintzen duen pertsonak bertan sartzeko beharrezkotzat jo ohi diren egintzak egiten baditu, sartzeko edo aztertzeko baimena eman duela pentsatuko da.

Hala ere, Konstituzioaren babespean dagoen egoitza batean sartu behar bada aztertzeko asmoarekin, zergapekoari berriazko baimena eskatu behar zaio eta beraren eskubideen berri eman behar zaio, eta hori guztia eginbide batean agertu behar da.

Aurreko edozein kasutan, zergapekoak baimena kentzen badu aktuarioak jardunak egiten ari diren tokian egoten jarraitzeko, aktuarioek Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 143. artikuluan araututako kautelazko neurriak hartu ahal izango dituzte, behin jardunak amaitu ondoren.

7. artikulua.- Ikuskatzaileen beste ahalmen batzuk.

1. Portuetan, tren geltokietan eta lurreko garraioen geltokietan, aireportuetan, merkatu nagusietan, hiltegiatan eta lonjetan eta antzeko tokietan aktuarioei noiznahi utziko zaie geltoki, kai eta bulegoetan sartzan datuak, fakturak, sarrerak eta irteerak biltzera, eta langileei bildutako datuak eta aurrekariak zehatzak diren ziurtatzeko eskatu ahal izango zaie.

2. (1) Aktuarioak ondokoak egiteko ahalmenak dituzte:

- a) Neurketak egin edo laginak hartu, eta argazkiak atera eta krokisak edo planoak egin. Eragiketa hauek aktuarioek eurek zein Zerga Administrazioak izendatzen dituen pertsonak egin ditzakete.
- b) Perituei irizpena eskatu; peritu lanerako titulu nahikoa eta egokia duten aktuarioak peritu aritu daitezke.
- c) Zergen ordainarazpena zehazten duten gauzak erakusteko eskatu.
- d) Zergapekoaren barruko kontrol sistemak begiztatu, beraren zerga-egoera hobeto egiaztatzeko.
- e) Zergapekoarentzat lanean ari direnei egiten duten lanaren inguruko gaiei buruzko informazioa eskatu.
- f) Eskatzea interesdunari Arabako Lurralde Historikoan ofiziala ez den hizkuntza batean idatzitako edozein egiaztagiriren itzulpena egiteko.
- g) Auditoretza informatikoko jardunak egitea. Auditoretza informatikoa da zergadunen informatika sistema eta ekipoak egiaztatzen bideratutako jarduerak, baldin eta zergadunek ekonomia jarduerak egiten badituzte sistema horietako ekonomia eragiketen erregistroaren osotasun-zehaztasunak bermatzeko.

3. (1) Halaber, behar beste informazio eskatu ahal izango dute sistema informatikoetan erregistratutako datu interesgarriak eta gakoekin edo zifratuekin bereziki babestutako sistema edo artxibo informatikoetara sartzeko gakoak dekodetzeko.

8. artikulua.- Zerga ikuskatzailtza hartzeko betebeharra.

1. (4) Zergapekoek zerga ikuskatzailtza hartu beharko dute, eta haiek funtzioakgaratzekolankidetzatza egokia eskainiko diete.

Zerga baterakuntzako araubidean zergak ordaintzen dituen taldea bada, sozietateen gaineko zergari dagokionez, edo balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez erakunde talde bat bada, tributuen ikuskaritzarierantzun beharko diote bai talde fiskalaren erakunde ordezkariak, bai erakunde taldearen entitate nagusiak, bai mendeko erakundeak.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arauak 136. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz, egin beharreko jarduketaren izaerak hala eskatzen duenean, zergapekoari bertaratzea eskatu ahal izango zaio, betiere, salbuespen gisa eta arrazoituz. Beste batzuen artean, honako egoera hauetan:

- a) Zergapekoa bertaratzea beharrezko denean, hark sinatutako edo igorritako agiriak zinezkoak direla egiaztatzeko.
- b) Zergapekoa behar denean, zerga ondore garrantzitsuko eragiketa zehatz batzuk egin zirela eta zein egoeratan egin ziren frogatzea, haietan zuzenean parte hartu duelako edo haien zuzeneko informazioa jaso duelako.

- c) Ordez kariaren jarduketak ikuskapen jarduketak luzatu, oztopatu edo eragotzi ditzakeenean.
- d) Ordez karien adierazpenek agerian uzten dutenean zergadunen jardueren berri ez duela edo jadanik ordezkutzen ez duela.
- e) [\(2\)](#) Beharrezkoa denean zergapekoak aitortutako zerga egoitza egiaztatzeko.

3. Aldez aurretik jakinarazi gabe aktuarioa jarduketak egin behar diren lekura bertaratzen denean, zergadunak edo bere ordezkariak arreta eskainiko diote, bertan egonez gero. Bertan ez badaude, leku horietan ardura edo erantzukizuna duen edozein pertsonak emango dio laguntza aktuarioari. Aurrekoez gain, une eta leku horretan eskatu ahal izango da adierazitako epean jarduketekin jarraitzeko eta egokitze jotako kautelazko neurriak hartzeko.

4. Zergaduna edo ordezkaria ikuskatze jarduketetan egon behar dute, zerga ikuskatzailetzaren iritziz jarduketa horiek behar bezala egiteko beharrezkoa bada.

II. KAPITULUA

ZERGAPEKOEK ESKU HARTZEA ETA BERAIEK ORDEZKARITZA

9. artikulua.- Zergapekoek esku hartzea.

1. Ikuskapen jarduketetan aritzeko gaitasunik ez duten pertsonen ordezkariak beraien legezko ordezkariak jardungo dute.

2. Pertsona juridiko baten ordezkarietan aritu diren organoek ikuskapen jarduketetan ez badituzte betetzen haren zerga betebeharrak, betebeharrak sortu direnean edo bete behar izan direnean organo horietan izan direnek aktuarioen agindei jaramon egin beharko diete, euren izenean ari direla eta erakundea lotu gabe, jarduketak burutzeko beharrezkoa izanez gero.

3. Sozietate edo erakunde bat desegin eta likidatzen bada, likidatzaileak Zerga Administrazioaren aurrera agertu behar dira horretarako agindeia eginez gero, erakundearen ordezkariak diren aldetik eta haren liburuak eta agiriak zaintzapean dituzten aldetik.

Liburuak eta agiriak erregistro publikoan gordeta egonez gero, aktuarioek bertan aztertu ahal izango dituzte eta, beharrezkoa bada, likidatzaileei bertan izateko eskatuko diete.

4. Zerga Administrazioaren aurrera agertu behar den zergapekoak aktuarioek esandako tokian finkatutako egunean eta orduan ez egoteko arrazoi zuzena alegatu nahi badu, jakinarazpena jaso eta hurrengo hiru egunetan adierazi behar du idatziz edo, bestela, ezarritako egunean bertaratzea eragotzi dioten inguruabarrak desagertu eta berehala, beti ere aurreko epealdiaren barruan.

Horrelako kasuetan jarduketak eteten badira, zergapekoak bere eskuan dagoen guztia egin behar du etendura eragin duten arrazoiak ezabatzeko; hori gertatutakoan, Administrazioaren aurrera agertzeko beste hitzordu bat ezarriko da.

10. artikulua.- (2) Ordezkaritza baten bidez jardutea.

1. Ikuskapen prozeduretan zergapekoa edo beraren legezko ordezkaria ez beste pertsona bat aritzen bada, horren berri agertu behar da berariaz egiten diren eginbide edo akta guztietan. Gainera, emandako ahalordearen frogagiria espedienteari atxiki behar zaio.

Ordezkaritza agiri publiko baten bitartez eman bada, nahikoa izango da harren erreferentzia. Gainera, espedienteari kopia arrunta edo fotokopia txertatu behar zaio aktuarioak egindako erkatzearen eginbidearekin.

2. Ikuskapen prozeduretan zergapekoak ordezkariaren bitartez jarduten badu, honek hasiera-hasieratik frogatu behar du bere ordezkaritza, beharrezkoa izanez gero.

Frogatzen ez badu, aktuarioek eskatuko diote frogagiria hurrengo ikuskapen-agerraldian aurkezteko, edo hamar egun pasatu baino lehen.

Ordezkaritza orduan ere ez badu frogatzen bere ordezkaritza, aktuarioek jarduketak eten ahal izango dituzte eta, jarduketak harekin egitea ez bada baliozkoa, etendura eginbidean agerraraziko dute. Halako kasuetan, zergapekoak ez agertuzat joko da eta horrek bidezko ondorio guztiak sortuko ditu.

3. Ahalorde nahikorik gabe agertzen diren pertsonen egiten dituzten adierazpenek Zuzenbidearen arabera frogatu behar dira.

Ordezkaritza frogatu edo baliozkotzat jo ondoren, ordezkariak ahalorde nahikorik ez duela eman duela edo emandakoa ezeztatu duela frogatu beharko du, eta jarduketaren deuseztasuna oinarritzeko ezin izango du alegatu berak sortutako akatsik ez hutsik.

4. Jarduketa batzuetan ordezkariak ahalorderik ez edukitzea edo ahalordea nahikoa ez izatea zuzendutzat joko da zergapekoak ikuskapeneko eginbideen, txostenen edo akten ondoriozko egintzak aurkatzen baditu egoera horiek aipatu gabe edo likidaturiko zerga zorraren zenbatekoa sartzen badu.

5. Aktuarioek jarduketetan laguntza emango duen eta ariko diren pertsonen nortasuna, izaera eta ahalmenak frogatzeko eska dezakete.

Jarduketetan esku hartzeko ahalmen nahikorik ez daukan pertsonaren bat agertuz gero, aktuarioak horren berri emango du eta zergapekoa ez agertuzat joko du. Hala ere, agertu den pertsonari errekerimendua eman ahal izango dio pertsona egokia bertaratzeko, edo berehala ager dadila eskatu, bestela.

6. Errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratibo baten ebazpenean administrazio ebazpena edo likidazioa baliogabetzen denean ordezkaritza ahala falta izateagatik edo behar bestekoa ez izateagatik, ordezkaritza egiaztatu behar izan zen edo behar besteko ahalordetzat jotzen ez den ahalordea aurkeztu zen unera atzera eramango dira jardunak, eta baliozkoak izango dira jardunak egin zituen ordezkariaren esku-hartzerik gabe egindako zergak aplikatzeko prozedurako jardunak eta frogak.

III. KAPITULUA

IKUSKAPEN-JARDUKETETAKO DOKUMENTAZIOA

11. artikulua.- Arau orokorrak.

1. Ikuskapen jarduketak berriemateetan, dilijentzietan, txostenetan eta aktetan dokumentatuko dira (kasuan kasukoa).
2. Zerga Administrazioak foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera formalizatu behar ditu nahitaez agiri horiek.

1. ATALA

BERRIEMATEAK

12. artikulua.- Berriemateak.

1. Ikuskapen prozedura eta jarduketetan Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 95. artikuluko 8. paragrafoan aipatutako berriemateak erabiltzen badira, ondokoak agerrarazi behar dira:
 - a) Non eta noiz eman den.
 - b) Berriematea jasoko duen pertsona edo erakundea eta haren egoitza.
 - c) Aktuario bidaltzaileen identifikazioak eta sinadurak.
 - d) Adierazi nahi diren egitateak edo inguruabarrak edo agindeiaren edukia.
2. Berriematearen bidez interesdunari ikuskapen prozeduraren edo jarduketaren hasiera jakinaraziz gero, preskripzio epearen konputua eten dela agerrarazi behar da, hala denean, eta prozedura edo jarduketa nolakoa den zehaztu behar da.
3. Berriemate bakoitzaren bi ale egingo dira eta bat Zerga Administrazioak gordeko du administrazio espedienteari atxikita.
4. Behin aktuarioek sinatuz gero, berriemateak interesdunei jakinaraziko zaizkie.

2. ATALA

DILIJENTZIAK

13. artikulua.- Dilijentziak.

1. Dilijentziak, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 95. artikuluko 8. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, prozedura azkentzeko baliatzen diren aktak edo txostenak prestatzeko erabil daitezke, bai eta beste prozedura bati ekitea eragiten duten egitateak edo inguruabarrak agerrarazteko ere (hala denean, aktuarioen proposamena beste agiri batean adierazi behar da).

2. Dilijentzietan ezin da egin zerga-likidaziorako proposamenik.

3. (4) Eginbideak eskuz edo sinadura elektronikoz izenpetu ahalko dira. Eginbideak sinatuko dituzte jarduketak egiten dituzten Zerga Administrazioari langileek eta jarduerak partekatzen diren pertsonak edo pertsonak, eta ale bat emango zaie. Sinadura elektronikoaren bidez sinatzen diren eginbideen kasuan, alea entregatu ordez, baliabide elektroniko egokien bidez eskuratzeko behar diren datuak eman ahalko dira.

Pertsona horrek uko egiten badio baliabide elektronikoaren bidez irispidea izateko beharrezko eginbidea edo datuak sinatzeari edo jasotzeari, edo ezin badu hori egin, horren berri emango da bertan. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 107. artikuluan 2. paragrafoan aurreikusitakoaren ondorioetarako, baliabide elektronikoaren bidez irispidea izateko beharrezko eginbidea edo datuak sinatzeari edo jasotzeari ezetz esatea ukotzat joko da.

4. (4) Eginbide batean islatzen diren ikuskapen jarduketan edo prozeduren izaerak ez badu eskatzen jarduketa horiek egin dituen pertsona bertan egotea, aktuarioek baino ez dute sinatuko eginbidea, eta eginbide horren ale bat bidaliko zaio zergapekoari, edo entzunaldiaren edo alegazioen izapidean adieraziko zaio.

14. artikulua.- Dilijentzien edukia.

1. Ikuskapen dilijentzietan ondokoak agerrarazi behar dira:

- a) Non eta noiz eman den.
- b) Sinatzen duten aktuarioen identifikazioak.
- c) Jarduketetan aritzen den pertsonaren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta sinadura, behar denean, eta beraren izaera edo ordezkariak.
- d) Jarduketan xede den zergapekoaren izen-abizenak (sozietatea bada, sozietatearen izen osoa), identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga egoitza.
- e) Dilijentziaren edukia bera, hau da, adierazi beharreko egitateak edo inguruabarrak.
- f) Zergapekoak egin dituen alegazio edo adierazpenetatik zerga ordainketan eragina dutenak.

2. Dilijentzietan zerga gaien edo haien baloraziorako elementu batzuk agertu behar dira, hain zuzen ere jarduketa edo prozeduran zerga likidaziorik ez sortu aurreko administrazio espedienteari atxikitzeko dokumentatu behar diren zerga zorren zenbatekoa zehazten duten guztiak.

3. Aurrekoez gainera araudi honetako 50. artikuluan aipatutako informazioa biltzeko jarduketan emaitzak ere agertu behar dira dilijentzietan.

4. Bereziki, ondokoak agerrarazi behar dira dilijentzietan administrazio prozedura hasteko:
- a) Arau-haustetzat jotzen diren ekintzak eta alderauzketak, aktuarioek zehapen prozedura izapidetzeko eskumena ez dutenean.
 - b) Zerga Administrazioak bere organoen bidez ezagutu dituen egitateetatik beste herri administrazioen batentzat eragina dutenak.
 - c) Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 226. artikuluan aipatutako berrikuspen prozedurak hastekoa bidea ematen duten egitateak eta inguruabarrak.
 - d) Zerga egoitza egiaztatzeko espedienteak hastea eragiten duten egitateak.
 - e) Laidotuaz gainera beste normarik eskatuta pertsegitu ahal diren delituak izan daitezkeen ekintzak edo alderauzketak.
 - f) Ikuskapen prozeduran kautelazko neurriak hartu direla; hala denean, neurriak deskribatu behar dira.
 - g) Zorraren erantzule solidario edo subsidiario izan daitezkeen identifikazioa eta haien erantzukizunean eragina izan dezaketen inguruabarrak eta aurrekariak.
 - h) [\(1\)](#) Sozietateen gaineko zergaren zerga finkapeneko erregimenean edo balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde taldeko erregimenean, zergak ordaintzen dituen taldearen menpeko erakundeekin egindako egiaztapen jarduketan emaitza.

3. ATALA

TXOSTENAK

15. artikulua.- Txostenak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 95. artikuluko 8. paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, ikuskapen eginkizunak dituzten organoek ondoko kasuetan egin behar dute txostena:
- a) Egiaztapen murriztuaren prozedura baten ondorioak dokumentatu behar direnean, araudi honetako 46. artikuluan xedatu den bezala.
 - b) Zergapekoa bertaratu gabe egindako erregularizazio prozedura baten ondorioak dokumentatu behar direnean, araudi honetako 47. artikuluan xedatu den bezala.
 - c) Formalizatzen diren desadostasun-aktak osatu behar direnean; batez ere aktan adierazitako erregularizazio proposamenaren funts diren egitateak eta Zuzenbideko oinarriak bildu behar ditu.
 - d) Zerga- oinarriak edo kuotak kalkulatzeko zeharkako zenbatespenaren araubidea aplikatu daitezkeenean edo zantzu-metodoa erabili ahal denean.

- e) Itzurpenaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura hasteko behar diren egitateak, inguruabarrak eta elementuak agerrarazi behar direnean, prozedura hori ikuskapen jarduketa edo prozeduren ondorioz edo horiek egiten ari direla hasiz gero.
- f) Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako txostena eman behar denean.
- g) Organo eskudunei jakinarazi behar zaienean nortzuk diren zerga-zorraren erantzule solidarioak edo nortzuk izan daitezkeen erantzule subsidiarioak; horrez gainera erantzukizunean eragina duten inguruabarrak eta aurrekariak zehazten dira.
- h) Zergapekoek egindako erregularizazioen edo balantze eguneratzeen egiaztapenaren emaitzak agerrarazi behar direnean.
- i) Banku edo kreditu jarduerak egiten dituzten pertsona edo erakundeei buruzko informazioa (kontu-mugimenduak edo eragiketak) biltzeko jarduketak egiteko baimena eskatzen denean, foru dekretu honetako 50. artikuluan xedatu den bezala.
- j) Ikuskapen jarduketak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 141. artikuluan ezarritakoez beste egun eta ordu batzuetan egiteko baimena eskatu behar denean.
- k) Zergen arloko arau-hauste izan daitezkeen egitateak agerrarazten dituzten dilijentziak osatu behar direnean (txostenetan inguruabarrak zehaztu behar dira), bidezko zehapenak ezartzeko, baldin eta aktuarioek ez badute zehapen espedientea izapidetzeko eskumenik.
- l) Aktuarioen ustez diruzkoak ez bestelako zehapenak ezartzea dakarten egitateak eta inguruabarrak agerrarazten dituzten dilijentziak osatu behar direnean.
- m) Herri Ogasunaren aurkako delitua izan daitekeelako zantzuak daudenean.
- n) [\(1\)](#) Foru dekretu honetan jasotako lankidetzako eta laguntza teknikoko kasuetan auditoretza informatikoko jarduketak dokumentatzeko.

2. Aktuarioak zergaren bat aplikatzeko beharrezkotzat jotzen duen guztietan egin dezake txostena (egokitasuna bidezkotu behar du).

Halaber, ikuskatzaile buruak ere, ikuskapen jarduketak burutzeko beharrezkotzat jotzen duenean, aktuarioek txostena emateko agindu dezake edo berak zuzenean egin espedientea aztertu ondoren.

3. Aktuarioek txostena eman dezakete zergapekoaren ondasunen edo eskubideen egoera deskribatzeko, zerga zorra kobratzeko bilketa kudeaketa errazteko asmoarekin.

4. ATALA

AKTAK

16. artikulua.- Aktak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 137. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako ikuskapen aktetan ondoko datuak agertu behar dira foru arau bereko 149. artikuluan ezarritakoez gainera:

- a) Akta sinatzen duten aktuarioen identifikazio pertsonala.
- b) Aurretiazko akta bat formalizatzen denean, hori berariaz agerrarazi behar da eta, gainera, akta hori eragin duten inguruabarrak eta ikuskapen egiaztapenaren xede izan den zerga gaiaren edo haren balorazioaren elementuak azaldu behar dira.

2. Zergapekoa enpresaria edo profesionala bada, nahitaez eduki behar dituen liburuen edo erregistroen egoera agerrarazi behar da aktan, hain zuzen ere antzemandako akatsak edo anomaliak, bakoitzak eragina duen zerga zehaztuta. Bestela, haiek aztertuta dena delako zerga ordainarazteko kontuan izan beharreko anomaliarik dagoela pentsarazten duen zantzurik ez dagoela adierazi behar da.

3. Bidezkoa denean, aktari likidazio proposamena atxikiko zaio, eta bertan zerga zorraren osagai diren elementu guztiak azalduko dira. Horren ondoreetarako, aktaren osagaitzat hartuko da aurrean aipatutako likidazio proposamenaren eranskina.

4. Egiaztatutako zerga kontzeptu bakoitzeko akta egingo da. Aktak zergaldi bat edo batzuetakoak izan daitezke.

5. Akta bakoitzaren bi ale egingo dira eta haietako bat jarduketetan aritzen den pertsonari eman behar zaio nahitaez.

Pertsona horrek ez badu nahi akta jaso edo sinatu, edo ezin badu sinatu edo ez badaki sinatzen, bertan agerraraziko da eta, hala ere, alea emango zaio. Akta jaso edo sinatu nahi ez badu, ezetsizat joko da Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 107. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoaren ondoreetarako.

17. artikulua.- [\(4\)](#) Akten izaera

1. Zerga Administrazioaren aktak aurretiazkoak edo behin betikoak izan daitezke.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketek irismen partziala dutenean eta egiaztapenaren xede den aldian zerga betebeharraren elementu guztiei eragiten ez dietenean, aktak aldeztuak izango dira.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketek zerga betebeharrarekin eta egiaztatutako aldiarekin lotutako irismen orokorra dutenean, aktak behin betikoak izango dira, artikuluko honetako 2., 3. eta 4. zenbakietan aipatzen diren kasuetan izan ezik, kasu horietan aurretiazko izaera izango baitute.

2. Aurretiazkoak dira Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 145. artikuluan xedatutakoaren arabera behin-behineko likidazioak (geroago egin beharreko behin betikoen kontura) eragiten dituztenak.

3. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 145.3 a) artikuluan xedatutakoaren arabera, akta bat egiteari ekingo zaio aurretik, besteak beste, inguruabar hauek gertatzen direnean:

a) Zergapekoaren eragiketen bolumenaren arabera zerga ordainketako araubidea aplikatu daitekeela, eragiketa horien bolumena behin betiko zehazterik egon ez eta horrexen arabera ordaintzen den zerga kontzeptu baten ziozko akta egin behar denean.

b) Balio erantsiaren gaineko zergaren ziozko akta bat formalizatzen denean behin betiko lain portzentajea egutegiko urtean egindako eragiketen arabera finkatu baino lehen.

c) Aktuarioek zerga gaia edo oinarrien egiaztapena edo ikerketa burutu ez eta ondorioz jarduketak eten beharra dagoenean honelakoetan behin-behineko likidazioa egin daiteke.

d) Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga, ez egoiliarren errentaren gaineko zerga edo ondarearen gaineko zerga egiaztatzen direnean, urte natural berari dagozkion ondarearen gaineko zerga eta errentaren gaineko zerga egiaztatu arte.

e) Zerga oinarrien edo errenten egozketaren araubidean dagoen sozietate edo erakunde bateko bazkideei buruzko aktak egiten direnean, erakundearen zerga egoera egiaztatzen ez bada.

f) Aktak egiaztatu beharreko zergaren oinarria beste batzuentzat ezarritako oinarrien arabera zehazten denean egiten badira, edo oinarri horretan atxiki beharreko etekinak kontatzen badira, eta batzuk zein besteak behin betiko egiaztatu ez badira, etekin horiek egiaztatutzat jotzen direnean izan ezik.

g) Egiaztaturiko egitateei eragiten dien erreklamazio judizialen edo prozedura penalen bat dagoenean.

h) Hirugarrenei eskatutako datuak lortu ez direlako edo beste administrazio bati eskatutako datuak, txostenak, irizpenak edo agiriak jaso ez direlako zerga betebeharraren elementuen egiaztapena eta ikerketa amaitu ezin izan denean.

i) Zerga berezien arloko esku hartzeazarduratzen diren aktuarioek egiaztapen eta ikerketa jarduketak egiten dituztenean. Kasu horietan, akta bat formalizatuko da, alde zuzeneko izaerarekin, erregularizatu beharreko zerga betebeharraren elementuei dagokienez.

j) Ez egoiliarren errentaren gaineko zerga egiaztatzen denean eta dagozkion etekinen ordaintzailearen zuzeneko zerga egiaztatu ez denean.

k) Lotutako pertsona edo erakunde talde baten jarduera egiaztatzen denean eta horien guztien egiaztapena amaitu ez denean.

l) Hasieran autolikidatutako tributu zorra deuseztatzen edo aldatzen duen erregularizazioa proposatzen denean, tributu betebeharraren elementu batzuerregularizatzearen ondorioz, beste tributu obligaziodun bati edo erregularizatuta ez dagoen beste tributu edo aldi bati egotzi behar zaiolako, betiere egozpen horren ondoriozko likidazioak irmotasunik hartu ez badu.

4. Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 145.3 b) artikuluan xedatutakoaren arabera, akta bat irekiko da, aurreko izaerarekin, letra horretan aurreikusitako kasuetan ez ezik, honako hauetan ere:

a) Zerga gaia egiaztapen eta ikerketa jarduketan ondorioetarako bereiz daitekeenean edo, lurralde zatikapena dela eta, gauzatzen den tokien arabera bereizi behar denean.

b) Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 14. artikuluan zerga saihestearen aurka ezarritako klausula aplikatu denean eta erregularizazioaren xede bakarra ez denean, baldin eta zerga betebeharraren gainerako elementuen bidez behin-behineko likidazioa egitea posible bada; kasu horretan, akta bat formalizatuko da aurretiazko izaerarekin, betiere zerga saihestearen aurkako klausula aplikatzearekin lotuta ez dauden zerga betebeharraren gainerako elementuei dagokienez.

c) Egiaztatze eta ikerketa prozedura batean pertsona edo erakunde lotetsiekin egindako eragiketen merkatuko balioa egiaztatzen denean, baldin eta hortik zor bat ateratzen bada eta zerga betebeharraren beste elementu batzuckerregularizatzen badira. Kasu horretan, akta bat formalizatuko da balorazioarekin lotutako zerga betebeharraren elementuei dagokienez, eta beste akta bat, hala denean, zerga betebeharraren elementu guztiei dagokienez, balorazioarekin lotuta egon ala ez.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, loturadun alderdi guztiak aldi berean egiaztatzen diren kasuetan, alderdi guztiak ados daudenean, zerga betebeharraren elementu guztiei buruzko akta bakarra formalizatu ahal izango da, baloreen egiaztapena barne.

d) Zerga kontzeptu eta epealdi beragatik Ogasun Publikoaren aurkako delitua izan litekeen elementuetatik bereizi direnean, egoera hori hautematen ez den beste elementu batzuekin batera. Kasu horietan, behin-behineko likidazioa formalizatuko da Ogasun Publikoaren aurkako balizko delituarekin lotuta dauden elementuei dagokienez, eta akta bat, egiaztatutako elementu guztiak jasoko dituen, balizko delituarekin lotuta egon edo ez, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 251.3 artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Legezko edo erregelamenduzko beste xedapen batzuetan hala zehazten denean.

IV. KAPITULUA

IKUSKAPEN JARDUKETAK: NON ETA NOIZ EGITEN DIREN

18. artikulua.- Ikuskapen jarduketak egiten diren tokia.

1. Aktuarioek zehaztuko dute kasu bakoitzean ikuskapen jarduketak non egin behar diren, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 140. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, eta berriematean agerraraziko dute.

2. Aurreko paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe, balorazio jarduketak tokirik egokienean egingo dira, nolakoak izango diren kontuan hartuta.

19. artikulua.- Ikuskapen jarduketa batzuk egin behar diren tokia ezartzeko irizpideak.

1. Interesdunak edo beraren ordezkariak ados dagoela adierazi ondoren, bulego publikoetan aztertu ahal izango dira Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 136. artikuluko 1. paragrafoan aipatutako agirietako batzuk, edo denak.

2. Jarduera ekonomikorik egiten ez duen zergapeko baten egoera ikuskatzen denean, aktuarioek bulego publiko egokietan azter ditzakete haien zerga-egoera behar bezala egiaztatzeko behar diren agiri eta frogagiri guztiak, hain zuzen ere zergen arloko arauak ezarritako agiriak eta haien eskatzen dituzten frogagiriak edo zerga aitortpenetan adierazitako egitateak edo inguruabarrak frogatzeko balio dutenak.

3. Interesdunaren zerga egoitza Araban badago, Zerga Administrazioak bertan aztertu ahal ditu aurkeztu beharreko liburu, agiri eta frogagiri guztiak, are beste lurralde batzuetan dauden edo egiten diren ondasunei, eskubideei eta jardueri buruzkoak ere.

4. Halaber, interesdunaren zerga-egoitza ez badago Araban, Zerga Administrazioak Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 140. artikuluetan aipatutako tokietan egin ahal ditu hari buruzko bidezko jarduketak guztiak; dena den, horrek ez du eragozten foru dekretu honetako 1. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatzea.

20. artikulua.- Jarduketak noiz egin daitezke.

1. Aparteko inguruabarretan, aktuarioek Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 141. artikuluan ezarritakoez beste egun eta ordu batzuetan jardun dezakete.

2. Aurreko paragrafoan xedatutako aplikatzeko, Ogasuneko zuzendari nagusiaren baimena behar da aurretiaz, eta hori lortzeko ikuskatzaile buruak ontzat emandako txostena bidali behar zaio.

II. TITULUA

IKUSKAPEN PROZEDURAK ETA JARDUKETAK

I. KAPITULUA

EGIAZTAPEN ETA IKERKETA PROZEDURA

1. ATALA

IKUSKAPEN PLANAK

21. artikulua.- Ikuskapen planak.

1. Ikuskapen planetan egiaztapen eta ikerketa prozeduren xede izango diren zergapekoak zehaztuko dira.

2. Ikuskapen planak Ogasuneko zuzendari nagusiak onetsi eta aldatu behar ditu, eta berak erabakiko du zergapekoak planetan sartzea eta haietatik baztertzea ere. Erabaki horiek hartzeko ondoko printzipioak izango dira aginduzko: legezotasuna, aukera, berdintasuna, eta baliabide publikoen eraginkortasuna eta eragingarritasuna.

22. artikulua.- Ikuskapen planak: motak.

1. Ikuskapen planak orokorrak edo bereziak izan daitezke.

2. Ikuskapen plan bereziak dira zergapeko bat edo batzuk hartzen dituztenak zergaldi zehatz batzuetako zerga-kontzeptu jakinen ziozko zerga gaiak edo kargapeko eragiketak egiaztatzeko eta ikertzeko.

3. Gainerako ikuskapen planak orokorrak dira; hauetan ez dago prozeduraren xede diren zerga-kontzeptuak eta zergaldiak agerrarazi beharrik.

23. artikulua.- Ikuskapen planen prestakuntza.

1. Ikuskapen planen proposamenak Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak egingo ditu.

2. Ikuskapen planetan zergapekoak sartzeko proposamenak Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuaren bitartez izapidetuko dira Ogasuneko zuzendari nagusiaren esku jartzeko.

24. artikulua.- Ikuskapen planen izaera.

1. Ikuskapen planak isilpekoak izango dira eta ezin izango zaie eman publizitatea.

2. Zergapeko batzuk ikuskapen planetan sartzeko edo haietatik kanpo uzteko edo plana aldatzeko arrazoiak ez dira sartuko haien ondoriozko egiaztapen eta ikerketa prozeduren administrazio espedienteetan.

1 bis ATALA [\(2\)](#)

EGIAZTAPEN ETA IKERKETA PROZEDURA HASI AURREKO JARDUKETAK

24 bis artikulua. [\(2\)](#) Egiaztapen jarduketak.

1. Informazioa lortzeko jarduketak gorabehera, egiaztapen eta ikerketa prozedura hasi baino lehen Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruak Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 144. artikuluko 3. idatz zatian ezarritako aurretiazko egiaztapen jarduketei ekiteko agindu dezake kasuko inguruabarrak hobeto ezagutzeko.

2. Jarduketek ukitzen dituzten pertsonen berri emango zaie: nolakoak diren eta zein den helburua.

3. Egiten diren jarduketak ez dira joko administrazio errekerimendutzat Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 27. artikuluko 1. idatz zatiaren ondorioetarako, eta ez dute etengo arau horretako 67. artikuluko 1. idatz zatiko a) letran ezarritako preskripzioaldia.

4. Jarduketan emaitza txosten batean jasoko da; bertan zerga prozedura bati ekin behar zaionez zehaztuko da, arrazoiak emanda. Txosten horrekin aurretiazko jarduketak amaituko dira; beraren kontra ezin izango da aurkeztu inolako errekurtsorik.

5. Egiaztapen jarduketak txostenik egin gabe amaitu daitezke, hain zuzen ere egiaztapen eta ikerketa prozedura hasiz gero.

2. ATALA

HASIERA ETA ERDIESPENA

25. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren hasiera.

Zergapeko baten egiaztapen eta ikerketa prozedura ezin da hasi hura ikuskapen plan batean sartu gabe.

26. artikulua.- Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren erdiespena.

1. Oro har, egiaztapen eta ikerketako ikuskapen jarduketak orokorrak izango dira.
2. Hala ere, ondoren azalduko diren kasuetan jarduketa partzialak egin ahal dira, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 145. artikuluan xedatutakoaren ondoreetarako.
 - a) Legezko arauetan edo araudietan galdatzen denean.
 - b) Ikuskapen plan berezia prestatzen denean, Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakita.
 - c) Ikuskapen plan orokorra prestatzen denean, Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak erabakiz gero. Honelakoetan aktuarioak horren berri agerrarazi behar du berriemate baten bidez ikuskapen jarduketan hasieran; bertan ondokoak azaldu behar ditu berariaz: egiaztatu eta ikertuko diren zerga, betebeharrak, ekitaldiak eta zergaldiak.
3. Egiaztapen eta ikerketa jarduketa orokorren xedea mugatu ahal izango da egiten ari diren bitartean hori gomendatzen duten arrazoiak agertzen badira eta ikuskatzaile buruak erabakitzen badu.

Era berean, aktuarioen iritzia aintzat hartuta, hasieran partzialak izan diren jarduketan eremua handitu ahal izango da, Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak edo berorrek eskuordetutakoak ontzat emanez gero.

27. artikulua.- Prozeduraren hasiera.

1. Egiaztapen eta ikerketa jarduketak zergapekoari berriematea jakinarazita (foru dekretu honetan ezarritakoaren arabera) has daitezke. Bertan ikuskatzailetzak behar dituen

agiriak eta gainerako elementuak noiz (eguna eta ordua) eta non aurkeztu behar dituen azalduko zaio. Berriemate horretan egin beharreko jarduketak izatera eta erdiespena jakinaraziko zaio zergapekoari.

Interesdunari agindeia bidaltzen bazaio bulego publikoetan egun jakin batean agertzeko, gutxienez hamar eguneko epea egon behar da haren jakinarazpenetik.

2. Jarduketak behar bezala egiteko komenigarritzat jotzen denean, eta betiere araudi honetako 6. artikuluan ezarritakoa aintzat hartuta, aktuarioak zergapekoaren bulego, instalazio edo biltegietara edo zerga gaiaren frogaren bat, are partziala ere, egon daitekeen edozein tokitara joan daitezke aurretik inolako berriematerik bidali gabe. Kasu horretan, jarduketak interesdunarekin egingo dira, bertan badago, edo, bestela, beraren ordezkaritza duen pertsonarekin (bulegoko, erregistroko, egoitzako, enpresako edo lantokiko arduraduna).

Halaber, bidezkozat jotzen dutenean, aktuarioek ikuskapen jarduketak hasi direla jakinarazi ahal izango diote zergapekoari aurretik berriematerik bidali gabe.

3. Berriemateak (behar bezala jakinarazita) edo aktuarioak egiaztapen eta ikerketa prozedurari ekiteko asmoarekin bertaratzeak (horren berri agerrarazi badute eta interesduna jakinaren gainean badago) ondore hauek sortuko ditu:

- a) Zerga Administrazioak zerga zorrak likidazioaren bidez zehazteko duen ahalaren preskripzio epea etengo da, eta gauza bera gertatuko egiaztapen eta ikerketa prozedurak hartzen dituen zerga kontzeptuen ziozko zehapenak eta ikuskatu beharreko betebeharrak ez betetzearen ziozko zehazpenak ezartzeko ahalarekin ere.
- b) Baldin eta zergapekoak ordaindu gabeko zerga zorrak berriematea jakinarazi ondoren sartzen baditu, edo egiaztapen eta ikerketa jarduketak beste moduren batean hasi ondoren, sarrera hori hasiko den aktaren ondoriozko likidazioaren zenbatekoaren kontura izango da. Gainera, sarrera horrek ez du kasuan kasuko zehapenak aplikatzea.

Jarduketa horiek hasi ondoren sartzen diren kopuruaren berandutza korrituak sarreraren aurreko egunaren eta lehen sartutako kopuruaren arabera kalkulatu dira.

- c) Baldin eta egiaztapen eta ikerketa prozedura hasi ondoren zergapekoak, zerga likidazioa egin beharrik ez izan arren, aitorpena aurkezten badu, ez ditu izango Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 114. artikuluko a) letran ezarritako ondoreak.

3. ATALA

GARAPENA

28. artikulua.- Prozeduraren garapena.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako ikuskapen jarduketak hasiz gero amaitu arte ekin behar zaie, beraien jite eta izaeraren arabera.

2. Ikuskapen jarduketak behar beste egunetan egingo dira. Egun bakoitzean, aktuarioek egokitzen dituzten jarduketak egingo dituzte.

3. Zergapekoa ez badago ados aktuarioak jarduketekin jarraitzeko ezarritako egunarekin, arrazoi-idazkia aurkeztu ahal izango dio Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruari eta hark noiz jarraitu erabakiko du.

Jarduketekin jarraitzeko eguna, ordua eta tokia ezartzen ez badira, aktuarioak interesdunari berak ezartzeko eskatu ahal izango berriemate baten bidez.

4. Jarduketak inguruabarrak kontuan izanda eten ahal izango dira.

Jarduketak etetea jaso beharko da eta zergapekoari jakinarazi.

5. (1) Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruak behar bezala baimendutako langile kualifikatuak esleitu ahal izango ditu jarduketetan, ikuskapen prozeduretan zein auditoretza informatikako jarduketetan lagundu ahal izateko.

29. artikulua.- Aktuarioak ordeztea.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketak hasieran agindu zaizkien aktuarioek egingo dituzte burutu arte.

2. Hala ere, aurreko paragrafoan ezarritakoa gorabehera, aktuarioak ordeztu egin daitezke utzarazpenagatik, lekualdaketagatik, gaixotasunagatik edo ikuskatzaile buruaren ustez horretara bultzatzen duen arrazoiren bat dagoelako. Nolanahi ere, hierarkian nagusi direnek bidezko denean beregana ditzakete jarduketa horiek.

30. artikulua.- Kautelazko neurriak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 143. artikuluan aipatutako kautelazko neurrietako bat hartzen bada, dilijentzia bidez agerrarazi behar da eta neurria Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak berretsi behar du.

2. (1) Prezintua lotura zigilatuaren bidez egingo da, edo, bestela, liburu, erregistro, datuak eta programak biltzen dituzten ekipo eta gailu elektroniko, gutunazal, pakete, kaxoi, gela edo lokalen ate, edo beste froga elementu batzuk ixteko edo lotzeko aukera ematen duen beste edozein bitartekoren bidez. Horrela, ezingo baitira zerga ikuskatzailetzaren baimen eta kontrolik gabe ireki.

Froga elementu horiek zehaztutako pertsona fisiko edo juridikoaren zaintzapean jarriz gordeko dira.

Bahitzeak, froga elementu higigarriak jabetzan hartzea esan nahiko du, eta horiek egoki zaintzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.

Gordetako zein bahitutako agiri edo objektuak, aldeztu aurretik, prezintatu egin ahal izango dira.

3. Kautelazko neurriak hartzeko, beharrezkotzat jotzen den laguntza eskatu ahal izango zaie agintari eskumendunei eta horien agenteei. Horiek guztiek laguntza hori eskaini egin

beharko dute, Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 136. artikularen 4. paragrafoan ezarritakoari jarraiki.

4. Kautelazko neurriak hartzeko dilijentzia bidez aurkeztuko dira agiriak. Horietan, hartutako neurriarekin eta eraginpeko ondasunen inbentarioarekin batera, neurri hori hartzeko egoera eta horren helburua adieraziko dira labur-labur eta zergapekoari, ondorengo paragrafo honetan adierazitakoaren arabera, alegazioak aurkeztu ahal izango dituela jakinaraziko zaio. Aipatutako dilijentzia, kautelazko neurria hartzen den une berean hasiko da posible ez den kasuetan izan ezik: zergapekoaren jokabidea dela eta, edo administrazioari egotz ez dakizkiokeen beste arrazoi batzuk direla eta. Azkeneko kasu horietan, ahal bezain laster emango zaio hasiera, eta berehala, kopia igorriko zaio zergapekoari.

Hartutako neurria gordetzea baldin bada, gordetzen duenaren identitatea jasoko da; honakoak ere jasoko dira: hark berariaz onartu duela, eta gordetako elementuak jaso dituen egoera berean zaintzeko betebeharraren (zerga ikuskatzaitzaren esku jartzea) berri eman zaiola. Era berean, jasoko da, betebeharrak bete ezean, izango dituen arduren berri eman zaiola.

5. (2) Bost eguneko epealdian (ezin da luzatu), kautelazko neurria jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera zenbatuta, zergapekoak alegazioak aurkeztu ahal izango dizkio Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuaren buruari. Gero honek neurria berretsi, aldatu edo bertan behera utzi ahal izango du behar bezala arrazoitutako erabaki baten bitartez, neurria hartzen denetik hamabost egun pasatu baino lehen.

Aurreko paragrafoan adierazitako erabakiaren aurka ezin izango da aurkeztu errekurtsorik ez erreklamaziorik; hala ere, ikuskapen prozedurari amaiera ematen dion administrazio egintzaren aurka aurkeztu ahal izango da.

6. Hartutako kautelazko neurriak bertan behera uzteko dilijentzia bidez aurkeztuko dira agiriak.

Prezintuak zergapekoaren aurrean irekiko dira, behar bezala justifikatutako arrazoia dagoenean salbu.

4. ATALA

PROZEDURAREN GEHIENeko IRAUPENA

31. artikulua.- (4) Gehieneko iraupen epea

Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 147. artikuluan ezarritako egiaztapen eta ikerketa prozeduraren gehieneko iraupen epearen ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko zergapekoari egotz dakizkiokeen etenaldi justifikatuak, ez eta luzapenak ere, Foru Dekretu honen 32. eta 33. artikuluetan zehazten den moduan, prozeduraren xede diren zerga betebeharren elementu eta aldi guztiei edo batzuei eragiten dieten alde batera utzita.

32. artikulua.- (2) Bidezko etenaldiak.

Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jarduketan iraupenaren konputua etetea bidezkoztat joko da ondoko kasuetan:

- a) Daturik, txostenik, irizpenik, baloraziorik edo dokumenturik eskatzen bazaio Estatuko Administrazioiko edo beste administrazio batzuetako administrazio organo edo unitate bati; kasu hauetan konputuaren etenaldia eskaera egiten denean hasiko da eta eskatutakoa jasotzen denean amaituko da. Honelako eskaerek eragiten dituzten etenaldi guztien iraupena sei hilabetekoa izan daiteke gehienez. Eskaera Europar Batasunetik kanpoko estatuei egiten zaienean, epea hamabi hilabetekoa izango da.
- b) [\(4\)](#) Ogasun Publikoaren aurkako delituaren zantzuak ikusten direnean eta espedienteak Ministerio Fiskalari edo jurisdikzio eskudunari igortzen zaionean, Ogasuneko zuzendariak igorpen hori egitea erabakitzen duenetik harik eta, hala badagokio, prozedurarekin jarraitzeko eskumena duen organoak espedienteak itzuli edo ebazpen judiziala jaso arte.
- c) Itzurpenaren aurkako klausula aplikatzeko prozedura, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 163. artikuluan aipatzen dena, hasten denean; honelako kasuetan konputua etenda egongo da prozeduraren izapide guztiak amaitu arte edo hura ebazteko epealdia amaitu arte.
- d) Zerga betebeharraren zehaztapena edo egozpena zehapen esparruko jardun judizialen mende dagoenean; kasu hauetan etenaldia jarduketan berri jakin eta hori espedienteak jasotzen denean hasiko da, edo jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari espedienteak bidaltzen zaionean, eta organo eskudunak prozedurarekin jarraitzeko ebazpenaren berri jasotzen duenean amaituko da. Hala ere, bidezkoa bada eta modurik badago, behin-behineko likidazioak egin ahal izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 145. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.
- e) Administrazioak bere jarduketak ezinbestean bertan behera utzi behar dituztenean; konputuan etenda egongo da jarduketak bertan behera utzi beharra eragiten duena desagertu arte. Hala ere, bidezkoa bada eta modurik badago, behin-behineko likidazioak egin ahal izango dira Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 145. artikuluko 3. idatz zatian xedatutakoarekin bat etorritik.
- f) Maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bitartez onetsitako Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomi Ituneko 65. artikuluan ezarritako Arbitraje Batzordearen aurrean eskumen gatazka planteatzen denean.
- g) Zerga egoitza egiaztatzeko prozedura, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 48. artikuluan aipatzen dena, hasten denean; honelako kasuetan konputua etenda egongo da prozedura erabat izapidetu arte edo hura ebazteko gehieneko epealdia amaitu arte.
- h) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 104. artikuluko 4. idatz zatian ezarritakoarekin bat etorritik aurkezten diren aitortzenetako datuen bat berretsi behar denean; kasu hauetan etenaldia eskaera bidaltzen denean hasiko da eta datua berresten denean amaituko da. Eskaera guztiek eragiten duten etenaldia sei hilekoa izan daiteke gehienez.
- i) Jakinarazpena ematen denean zergapekoa hil dela edo beraren nortasun juridikoa azkendu dela jakinez gero; honelako kasuetan etenaldia jakinarazteko ahaleginak

egiten direnean hasiko da eta zergapekoaren ondorengoek jakinarazpena jasotzen dutenean amaituko da. Nolanahi ere, prozedura azkentzen duen ebazpena jakinarazten bada, jarduketa hori honexetarako soilik hartuko da baliozko jakinarazpen saiotzat: jakinarazpena prozeduren iraunaldian egin beharra betetzat jotzeko.

Halaber, jakinarazpena ematen denean zergapekoaren konkurtsoa adierazi dela eta administratzeko eta baliatzeko ahalak eten zaizkiola jakinez gero; honelako kasuetan etenaldia jakinarazteko ahaleginak egiten direnean hasiko da eta konkurtsoaren administratzaileak jasotzen dutenean amaituko da. Nolanahi ere, prozedura azkentzen duen ebazpena jakinarazten bada, jarduketa hori honexetarako soilik hartuko da baliozko jakinarazpen saiotzat: jakinarazpena prozeduren iraunaldian egin beharra betetzat jotzeko.

- j) [\(4\)](#) Maiatzaren 23ko 12/2012 Legeak onetsitako Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 47 ter artikuluan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz, ikuskatzeko eskumenak eraginpeko beste administrazio batzuekin koordinatu behar direnean, jakinarazpena egin zenetik igarotako denborarako eta ondorengo bi hilabeteetan, eraginpeko administrazio batek ere oharrik egiten ez badu. Bestela, etendura ulertuko da harik eta, aipatutako artikulua laugarren paragrafoan xedatutakoaren arabera, jarduketekin jarraitu eta dagozkion administrazio egintzak eman arte.

Eragin bera izango du jarduketan epea zenbatzeko orduan, ikuskatzeko eskumenak beste zerga administrazio batzuekin koordinatzen direnean.

33. artikulua.- [\(2\)](#) Zergapekoari egotzi beharreko luzapenak.

Zergapekoari egotziko zaizkio luzapen hauek, besteak beste:

- a) Prozedurak zergapekoari egotzitako atzerapenak Zerga Administrazioak bertaratzeko eskatzen dionean edo agiriak, aurrekariak edo zergaren arlorako garrantzia duen informazioa aurkezteko eskatzen dionean. Bertaratzeko eskatzen denean, luzapena bertaratzeko ezarritako egunaren biharamunetan hasiko da, edo errekerimendua betetzeko emandako epealdia amaitu ondoko egunean, eta eskatutakoa erabat betetzen denean amaituko da. Zergetarako garrantzia duten agiri, aurrekari edo datu errekerimendua ez badira oso-osorik betetzen, ez erantzuntzat joko dira luzapenaren konputurako harik eta behar bezala bete arte, berariazko araudiak besterik ezarri ezean.
- b) Zergapekoak agiri eta froga berriak aurkeztea entzunaldia edo alegazioen izapidea egin ondoren. Luzapena izapidea amaitu den hurrengo egunean hasiko da eta agiri edo froga berriak aurkezten direnean amaituko da. Agirien errekerimendua prozedura izapidetzen ari den bitartean egiten bada, aurreko a) letran xedatutakoa aplikatuko da.
- c) Administrazioak epealdiren bat luzatzea onartzea edo, zergapekoak eskatuta, jarduketak geroratzea onartzea. Luzapenaren iraupena epealdia amaitzen den egunaren edo hasieran finkatutako egunaren biharamunetik onartutako luzapena amaitu artekoa izango da.
- d) Zergapekoak eskatuta hasitako prozedura geldiaraztea ebazpena emateko ezinbestekoa den izapideren bat ez betetzeagatik. Luzapena izapidea ez betetzat jotzen den egunaren biharamunean hasiko da eta zergapekoak hura betetzen

duenean amaituko da. Nolanahi ere, gerta liteke izapidea iraungitzat jotzea, interesdunari ohartarazi ondoren.

- e) Ebazpen edo likidazio proposamenen jakinarazpenak atzeratzea, bai eta prozeduraren izapidetzan zergapekoei bidaltzen zaizkien berriemateak ere. Luzapena jakinarazteko saialdia egiten den egunaren biharamunean hasiko da eta jakinarazpena egiten den egunean amaituko da.
- f) Zergapekoak zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzearekin zerikusia duten datuak, agiriak edo frogak aurkeztea. Luzapena espedientearen horren berri jasotzen denean hasiko da, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 153, artikuluko 3. idatz zatiko a) letran ezarri den bezala.
- g) Zergapekoa ez bada agertzen aktak sinatzera ezarritako egunean eta lekuan, horretarako ezarritako egunetik haiek jakinarazi arte pasatzen den denbora.
- h) (3) TicketBAI betebeharra garatzen duen Foru Dekretuak jasotzen duen TicketBAI obligazioa ez betetzea. Atzerapena zenbatuko da ondorioak izan ditzakeen prozeduraren bat hasten denetik betetzen den datara arte.

34. artikulua.- Epea konputatzeko arauak.

1. (2) Zergapekoak bere espedientearen izapidetza zertan den eta araudi honetako aurreko bi artikuluetan adierazitako aldien konputuaren berri jakiteko eskubidea du, etenaldi eta luzapen bakoitzaren hasiera eta amaiera egunak zehaztuta. Eskubide hau baliatzeko eskabidea aurkeztu behar du.

2. Bidezko etenaldia gertatzen bada, informazioa noiz eskatu eta noiz jaso den agerrarazi behar da, baina nori edo zein agintaritzari eskatu zaion adierazi gabe.

Hala ere, espedientea bukatuta dagoenean, zergapekoak informazioa eman duen pertsona edo erakundea zein den jakin ahal izango du entzunaldiaren izapidean.

3. Ikuskapen jarduketaren iraupenaren konputua eteteak ez du eragotziko etenaldi horretan beste jarduketa batzuk egitea.

4. Bidezko etenaldiak eta zergapekoari egotzi beharreko luzapenak konputatzean egutegiko egunak zenbatuko dira.

5. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 147. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako inguruabarrak gertatzen direnean, prozedurako jarduketekin jarraituko dela adierazten duen berriemateak berekin ekarriko du bertan aipatutako epeen konputuari berriz ekitea.

6. (2) Jarduketei berriz ekiten bazaie bidegabe eten ondoren, zergapekoari formalki jakinarazita, edo jarduketak egiten badira prozedura burutzeko gehieneko epealdia amaitutakoan, zerga betebeharraren guztien preskripzioaldia etengo da, eta prozeduran aipatzen diren epealdi guztiak ere bai.

35. artikulua.- Egiatzapen eta ikerketa prozedurako jarduketaren iraupen epea luzatzea.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 146. artikuluan aipatutako epea hamabi hilabete luza daiteke, gehienez, ikuskatzaile buruak erabakita, baldin eta prozedurak hartzen dituen zergaldi edo zerga kontzeptuetako batean ondoren azalduko diren inguruabarretako bat gertatzen bada:

a) [\(2\)](#) Oso konplexuak direnean. Ondoko kasuak joko dira oso konplexutzat:

1. Zergapekoaren eragiketen bolumena kontuei auditoretza egin behar izateko ezarritakoa edo handiagoa izatea.

2. Zergapekoaren kontabilitateko edo erregistroko betebeharrak ez betetzeak, kontabilitateko liburuak edo erregistroak galtzeak edo zergapekoak horiek ez aurkezteak egiaztapena eragozten duenean eta ondorioz epealdia luzatu beharra egotea.

3. Elkarri lotutako pertsona edo erakunde batzuen jarduerak edo eragiketak egiaztatzeke zerga administrazio bateko edo batzuetako zergapeko batzuen egoera egiaztatu behar izatea, eta 75etik gora zergapekoaren egoera egiaztatu behar izatea, baldin eta egiaztapen jarduketak zergapekoen zerga egoera erregularizatzeko beharrezkoak badira.

4. Zergapekoak Arabako Lurralde Historikotik kanpo egin dituen jarduerak egiaztatu eta ikertu behar izatea (foru dekretu honetako 1. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaienean jarduketoi).

5. Zergapekoak administrazio bati baino gehiagori ordaintzea Sozietateen gaineko Zerga edo Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

6. Zergapekoa ikuskatzen ari diren talde bateko kidea izatea, talde horrek zerga finkapeneko araubidean ordaintzen badu Sozietatearen gaineko Zerga edo erakunde taldeen araubide berezian ordaintzen badu Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

7. Zergapekoa nazioarteko zerga gardentasuneko araubidean egotea edo partaidetza edukitzea ikuskatzen ari diren errenta egozpenaren araubideko erakunde batean.

8. Zergapekoak ikerketapean egotea uste delako zerga ordainketan iruzur egiteko, zergak ez ordaintzeko edo bidegabeko itzulketak edo zerga onurak eskuratzeko sare edo antolakunde batean parte hartzen ari direla. Kasu honetan sartzen da, halaber, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketan iruzur egiteko antolatu direla uste den taldeak ikertzea, hain zuzen ere kanpoko edo Europako Batasunaren barruko merkataritza eragiketekin zerikusia dutenak.

9. Zergapeko bat ikerketapean egotea argitzeko ea hauetako bat egin duen ondasun, eskubide edo errenten benetako titularrari dagokion zerga ordainketari itzuri egiteko asmoarekin: eragiketak simulatu; faktura, ziurtagiri edo bestelako dokumentu faltsu edo faltsutuak erabili; pertsona fisiko edo juridikoak tartekatu.

10. Ekonomikoki lotuta daudela, ondasun edo zerbitzu jakin baten produkzioan parte hartzen duten pertsona edo erakunde batzuk egiaztatzea, baldin eta ikuskapenaren helburua produkzio eta banaketa prozesuko faseak egiaztatzea bada.

11. Zerga baten ordainketan onura bat aplikatzea bidezko denez argitzeko beste zerga bateko baldintzak edo araubideak betetzen direnez egiaztatu behar izatea.

12. Zerga araubide bereziren bati helduta enpresa bat berregituratzeko eragiketak egiaztatzea eta beharrezkoa izatea zergapeko batzuen inguruko jarduketak egitea administrazio jardulearen esparruan edo beste zerga administrazio batenean.

13. Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean uste izatea balitekeela Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 14. artikuluko 1. idatz zatian ezarritakoa gertatzea.

- b) Zergapekoak Zerga Administrazioari ekonomi jardueraren bat ezkutatu diola ulertuko da, eta beraz, kasuan kasuko jarduketa epea luzatu ahal izango da, noiz eta aktuarioek zantzurik dutenean zergapekoak aitortu gabeko jarduera enpresarial edo profesionala egin duela pentsatzeko, baldin eta jarduera horrengatik adierazpenik aurkeztu ez bazuen, edo zergapekoak berak aitortutako jarduera enpresarial edo profesionalerik kanpoko beste bat egin duela pentsatzeko.

Honen ondoretarako, ondoko kasuetan jarduera aitortuenean ezarritakoarekin bat ez datorrela pentsatuko da:

1. Jarduera ekonomikoek Ekonomia Jardueren Sailkapen Nazionalen esleituta duen taldeak bat ez datozenean eta Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera osagarritzat ezin hartu direnean.

2. Aurkitutako jarduketa Ekonomi Jardueren gaineko Zergaren ondoreetako adierazi ez den lokalaren unitate batean gauzatzen denean.

3. Zerga berezien eremuan, jardueraren inskripzioan ageri den jarduera eta establezimendu kodea zergapekoa alta emanda dagoenarekin bat ez datorrenean.

2. Egiaztapen eta ikerketa prozedurako jardueren iraupen epea luzatzeko, kasuan kasuko aktuarioak erabakiko du aurreko paragrafoan aipatutako inguruabarretako bat gertatu den.

3. Epea luzatzeko proposamena idatziz bidali behar zaio Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko ikuskatzaile buruari; proposamenean aipatzen diren inguruabarren garrantzia haztatu behar da epea luzatu beharra justifikatzeko.

Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak horietako bat gertatu dela uste badu, prozeduraren epea luzatzea erabakiko du.

4. Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak arrazoiak azaldu behar ditu erabakian; gero interesdunari jakinaraziko zaio eta ezin izango zaio aurkeztu errekurtsorik. Hala ere, azkenean ematen den likidazioaren aurka errekurtsio edo erreklamaziorik jartzen bada, epea luzatzea bidezkoa denez planteatu ahal izango da.

5. Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak ezin du erabakia eman harik eta jarduketak hasi direnetik sei hilabete igaro arte, gutxienez; horrela, aldi horretan iraupena luzatu beharra dagoenez aztertu ahal izango da.

Honen ondoreetarako, ez dira kontuan hartuko prozeduran gertatzen diren bidezko etenaldiak eta interesdunari egotzi beharreko luzapenak (foru dekretu honetako 32 eta 33. artikuluetan finkatu dira).

5. ATALA

AMAIERA

1. AZPIATALA

AKTA FORMALIZATU GABE AMAITZEA

36. artikulua.- Ikuskapen txostenaren bidez amaitzea.

1. Zergapeko baten inguruko egiaztapena eta ikerketa egin behar dituzten aktuarioek txostena bidaliko diote Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruari Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 148. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako inguruabarretako bat gertatzen denean.
2. Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak txostena aztertu eta bidezko deritzona erabakiko du.

2. AZPIATALA

IKUSKAPEN AKTAK

37. artikulua.- Adostasun aktak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 151. artikuluan aipatutako kasuan, zergapekoaren adostasunak aktan bildutako egitateez gainera bertan ageri den erregularizazio proposamenaren ondoriozko likidazioan eragina duten elementu guztiak ere hartzen ditu.
2. Bi alderdiek sinatutakoan, zergapekoak jakinarazitzat hartu behar du berariazko adostasuna emanda formalizatutako aktaren edukia.
3. [\(4\)](#) Lotutako eragiketak erregularizatzean, Zergen Ikuskaritzak aldi berean erregularizatu ahalko du Arabako Foru Ogasunak ikuskatzeko eskumena duen pertsona edo erakunde lotu guztien zerga egoera, baldin eta pertsona edo erakunde horiek guztiak ados badaude.

38. artikulua.- Desadostasun aktak.

1. (2) Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 152. artikuluan aipatutako kasuetan zergapekoari edo beraren ordezkariari aktaren ale bat emango zaio, bi alderdiek sinatuta. Ordutik aurrera akta jakinarazitzat joko da eta zergapekoak hamabost eguneko epealdia edukiko du akta formalizatu ondoren nahi dituen alegazio guztiak aurkezteko Zergak Ikuskatzeko Zerbitzuari.

Zergapekoak edo beraren ordezkariak akta ez badu nahi akta sinatu edo jaso, edo ezarritako lekuan eta egunean agertzen ez bada sinatzera, alegazioak aurkezteko epealdia akta jaso edo sinatzeari uko egin dionetik hasiko da zenbatzen, edo, sinatzera agertzen ez bada, akta jakinarazten zaionetik.

2. Desadostasun aktetan, gertaerak eta aplikatu beharreko zat jotzen diren Zuzenbideko oinarriak adieraziko dira.

Halaber, aktaren barruan berariaz agerrarazi behar da zergapekoak adierazitako desadostasuna, edo bestela adostasuna ematea eragozten duten inguruabarrak zehaztu behar dira. Nolanahi ere, geroago zergapekoak eskubidez komeni zaion guztia alegatu ahal izango du.

39. artikulua.- Aktak formalizatzeko tokia.

Aktuarioek aktak zergapekoaren bulegoan, negozio lokalean, idazguan edo etxean edo Zerga Administrazioaren bulegoetan egitea erabaki dezake.

40. artikulua.- (4) Aktak sinatzea

Ikuskapen aktak zergapekoak eta egiaztapen eta ikerketa prozeduraren jarduketak egin dituzten aktuarioek sinatuko dituzte.

Aktak eskuz edo sinadura elektronikoz sinatu ahalko dira.

Akta eskuz sinatuta izenpetzen bada, akta bakoitzaren ale bana emango zaio zergapekoari.

Akta sinadura elektronikoz bidez sinatzen bada, alearen entregaren ordezkariak eman ahalko dira, datu horiek eskuratzeko bitarteko elektronikoz egokiak erabiliz.

Aktak zergapekoari jakinarazi zaizkiola ulertuko da hark sinatzen dituen unean.

41. artikulua.- Adostasun akten izapidetza.

1. Akta batean nahitaez agertu behar direnetako bat oker badago edo, oro har, xedea lortzeko ezinbestekoa den zerbait falta bada, prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko eskumena duen organoak akatsa zuzentzeko jarduketak xedatuko ditu edo, bestela, akta deuseztatzea erabakiko du eta, bidezkoa bada, jarduketak akatsa gertatu den unera atzeratuko ditu edo, bestela, ikuskapen prozedura berriz hasteko eskatuko du.

Akta deuseztatzeko erabakia emanaz gero, zergapekoari jakinaraziko zaio.

2. Aurrekoa gorabehera, akta batean akats materiala dagoela edo indarreko arauak gaizki aplikatu direla antzematen bada, bidezko administrazio egintza emango da.

42. artikulua.- Desadostasun akten izapidetza.

1. Administrazio egintzak eman aurretik jarduketa osagarriak egitea erabaki ahal da, edo bidezko txostenak zabaltzea, zergapekoak aurkeztutako alegazioen inguruko alderdi batzuk argitzeko ere.

2. Zergapekoak alegazioen izapidean berariaz adierazten badu ados dagoela, osorik zein partzialki, formalizatutako aktari dagokion erregularizazio proposamenarekin, antzemandako arau-hausteen zioz zehapena ezartzeko erabakian Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 192. artikuluko 1. paragrafoan ezarritako murrizpena aplikatu ahal izango da, bertan ezarritako gaineko betekizunak betez gero.

6. ATALA

ARAU BEREZIAK

43. artikulua.- Zeharkako zenbatespena.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluan xedatutakoaren ondoretarako, ondoko kasuetan kontabilitate-betebeharrak modu nabarmenean ez direla bete pentsatuko da:

a) Interesdunak kontabilitatea edo zerga-xedapenek ezarritako erregistroak arteztu beharra betetzen ez duenean.

Kontabilitateko libururik eta erregistrorik ez dagoela pentsatuko da aktuarioek eskatu eta aurkezten ez direnean.

b) Kontabilitatean jardueren, ondasunen edo eskubideen titulartasuna behar bezala agertzen ez denean.

c) Kontabilitateko erregistroetan eta agirietan zerbait falta izateak edo zerbait aldatuta edo oker egoteak eragiketen egiaztapen zehatza eragozten duenean.

d) Interesdunak aurkeztutako agiriei oro har onartutako teknikak eta irizpideak aplikatuta ezin denean ez aitorpena egiaztatu ez egiaztatu beharreko oinarriak, kuotak edo etekinak ondo zehaztu.

e) Kontabilitateko eragiketen eta jardueran egindako eskuraketa, gastu eta bestelako eragiketen artean inkongruentziak (frogatuz gero) kontabilitatea oker dagoela pentsarazten duenean.

2. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikuluen 1. paragrafoan xedatutakoaren ondoretarako ulertuko da Zerga administrazioaren ikertzeko egintzari

jazartzea, uko egitea edo trabak ipintzea, foru arau horren 208. artikuluan ezarritako jarreraren bat gertatzen bada.

3. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikulua xedatutako inguruabarretako bat gertatzeak bakarrik ez dakar zeharkako zenbatespenaren metodoa aplikatzea, baldin eta, ikuskapen jarduketan garapenean lortutako datu eta aurrerakinekin bat etorrira, oinarria edo kuota zenbatespen objektibo edo zuzenekoaren metodoaren bidez zehaztu ahal bada.

4. (4) Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 52. artikulua 2. paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, balio erantsiaren gaineko zerga denean, erregimen sinplifikaturako ezarritako indizeak, moduluak eta gainerako parametroak hartuko dira kontuan, azken araubide horri uko egin dioten subjektu pasiboak badira, betiere zeinu, indize edo modulu horiek aplikatzearen ondorioz sortutako zenbatekoa gainditzen duten kuotak zehazten dituzten eragiketa lotuak eta salbuetsi gabeak daudela frogatuta, integratu beharreko kuotak egiaztatutako eragiketetatik eratorritakoak izango dira.

5. Oinarri, kuota edo etekinen zeharkako zenbatespena aplikatu behar denean zergapekoen zerga egoera erregularizatzeko, aktuarioek akta formalizatuko dute, non erregimen hori aplikatzearen ondoriozko oinarriak, kuotak edo etekinak zehaztuko diren; horrez gain, akta horri arrazoitutako txostena gehituko zaio, non Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 153. artikulua 1. paragrafoan aipatutakoak azalduko diren.

6. Zergapekoaren zerga egoera zeharkako zenbatespena aplikatzearen bidez erregularizatzeko aktak desadostasunez sinatzen badira, inguruabar biak jasotzen dituen txosten bakarria egin ahal izango da.

7. (4) Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 153.3 artikulua d) letrak aipatzen duen zeharkako zenbatespenerako erabilitako datuak zerga administratiboki bertatik badatoz, hirugarrenen tributu datuen izaera erreserbatua babesteko metodoak erabiliko dira, zergapekoaren defentsa eskubideari kalterik egin gabe.

Bereziki, elkarren artean harremanik ez izateko moduan banatuko dira datuak:

a) Laginean jasotako subjektuen identifikazioa.

b) Zerga aitortzean jasotako datuak, oinarri, kalkulu eta zenbatespenak zehazteko erabilitako ehunekoak edo batez bestekoak kalkulatzeko balio dutenak.

Administrazioak aukeratutako lagina zein ezaugarriaren arabera hautatu den adieraziko du. Besteak beste, laginaren espazio eta denbora eremua, egiten duten jarduera edo eragiketa bolumenari dagokion tartea hartu ahal izango dira kontuan.

43 bis artikulua.- (2) Erantzukizun solidarioaren adierazpena.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean aktuarioak jakiten badu egitate edo inguruabar batzuk direla eta balitekeela norbaitek erantzukizun solidarioa edukitzea, Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 42. artikulua ezarri den bezala, erantzukizuna deribatze prozedura abiaraziko du araudi honetako 15. artikuluko 1. idatz zatiko g) letran aipatzen den txostenaren bidez. Hasierako txostena jakinaraziko zaio zergapekoari

eta erantzukizun adierazpenak hartzen dituen zerga betebeharrak eta aldiak azalduko zaizkio, bai eta oinarri gisa hartzen diren manuak ere.

2. Erantzukizunak zehapenak hartzen baditu, beharrezkoa izango da alde zurreratik zehapen prozedura ebazteko proposamena formalizatuta egotea.

3. Zordun nagusia ikuskatzeko jarduketetan zerga zorra kobratzerik ez dela egongo edo kobratzen zaila izango dela pentsarazten duten zantzuak agertzen badira, organo eskudunei kautelazko neurriak ezartzeko proposatuko zaie, hain zuzen ere Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 78. artikuluko 3. zenbakian ezarritakoak, bai zordun nagusiari dagokionez, bai erantzule solidarioei dagokienez (egonez gero). Proposamena arazoitu egin behar da.

4. Erantzukizuna adierazteko erabakia prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko eskumena daukan organoak hartu behar du, eta hartu ere zordun nagusiaren likidazioa egiteko eta, beharrezkoa izanez gero, zehapena ezartzeko administrazio egintza eman ondoren.

Erabakia erantzuleari jakinaraziko zaio zordun nagusiari bere borondatez ordaintzeko emandako epealdia amaitu baino lehen. Bestela, prozedura amaitutzat joko da beste izapiderik gabe; hala ere, baliteke geroago zerga bilketako organoek beste prozedura bat abiaraztea.

43 ter artikulua.- (2) (4) Zergak zerga baterakuntzaren araubidean edo erakunde taldearen araubide berezian ordaintzen dituzten erakundeekin egindako jarduketak.

1. Egiaztapen eta ikerketa prozedura bakar batean egiaztatuko eta ikertuko dira sozietateen gaineko zergaren talde fiskala eta balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde-taldea; horren barruan sartuko da entitate ordezkariak zerga baterakuntzaren araubidean dituen zerga-betebeharrak egiaztatzea, edo entitate nagusiak prozeduraren xede den entitateen eta mendeko erakundearen araubide berezian dituen zerga-betebeharrak egiaztatzea.

2. Behar denean, prozedura horretan sozietateen gaineko zergaren edo balio erantsiaren gaineko zergaren tributazio indibidualaren araubidearen ondoriozko betebeharrak egiaztatuko dira, bai eta prozeduraren ondoriozko gainerako zerga betebeharrak guztiak ere. Gainera, behar izanez gero, beste zerga administrazio batzuekin lankidetzan edo koordinatuta jardun ahal izango da taldearen zerga ordainketa argitzeko (zerga baterakuntzaren araubidea edo erakunde taldeen araubidea).

Prozedura garatzen den bitartean, ikuskapen-organoei kasu egin beharko diete bai talde fiskalaren erakunde ordezkariak eta mendeko erakundeek, bai erakunde-taldearen erakunde nagusiak eta mendeko erakundeek.

3. Sozietateen gaineko Zergaren ordainketan, zerga talde bateko menpeko erakunderen bat beste lurralde historikoetako bateko arautegiari lotuta badago, lurralde horretako administrazioari lankidetzan jarduketak eskatuko zaizkio, araudi honetako 1. artikuluko 2. paragrafoan xedatutakoarekin bat etorriz.

Balio Erantsiaren gaineko zergaren ordainketan, erakunde talde bateko menpeko erakunderen bat egiaztatzeko eta ikertzeko eskumena beste lurralde historikoetako

bateko erakunde batek badauka, zerga administrazio eskudunari koordinazio jarduketak eskatuko zaizkio.

4. Zergak zerga baterakuntzaren araubidean edo erakunde taldearen araubide berezian ordaintzen dituzten talde mendeko erakundeen gaineko jarduketarik ez da hasiko, harik eta erakunde ordezkariak edo erakunde nagusiak egiaztatzeko eta ikertzeko jarduketak hasi arte.

Hala ere, hala dagokionean, mendeko erakundeek zerga baterakuntzaren araubide berezian edo erakunde taldearen araubidean zergak ordaindu ez dituzten beste tributu edo aldi batzuk egiaztatu ahaliko dira.

Nolanahi ere, lehentasuna emango zaio menpeko erakundeak egiaztatzeari, taldearen inguruko jarduketek ezarritako epealdian amaitu ahal izateko.

5. Talde fiskaleko sozietateen gaineko zergaren edo erakunde taldearen balio erantsiaren gaineko zergaren preskripzio epea eten egingo da sozietateen gaineko zergari dagokionez talde fiskalaren erakunde ordezkariarekin edo balio erantsiaren gaineko zergari dagokionez erakunde taldeko erakunde nagusiarekin egindako edozein egiaztapen eta ikerketa jarduketengatik.

Preskripzio epea eten egingo da, halaber, egiaztapen jarduketak talde fiskalaren edo erakunde taldearen mendeko edozein erakunderekin egiten badira, betiere erakunde ordezkariak edo erakunde nagusiak jarduera horien berri formala badu.

Etena ondokoei ere aplikatuko zaie: taldeak aurkeztutako aitorpenean ez agertu arren, zerga taldean edo erakunde taldean egon behar diren erakundeei.

Halaber, erakunde batek aitorpenean adierazten badu zerga talde edo erakunde talde bateko kidea dela eta gero egiaztatzen bada ez dela, Sozietateen gaineko Zergaren edo Balio Erantsiaren gaineko Zergaren ordainketan dauzkan betebeharren preskripzioaldiaren konputua etengo da.

6. Zerga-taldearekin edo erakunde-taldearekin jarraitutako prozeduraren iraupen-epeari eragingo diote mendeko edozein erakunderekin jarraitutako prozeduran zerga-administrazioari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik gertatzen diren etenaldi justifikatuek eta atzerapenek, baldin eta sozietateen gaineko zerga erakundeen taldeko zerga-baterakuntzaren araubidean edo balio erantsiaren gaineko zergan egiaztatzeari buruzkoak badira, betiere erakunde ordezkariak edo erakunde nagusiak horren berri formala duenean eta une horretatik aurrera.

Era berean, ikuskapen prozeduraren iraupen epea luzatzeak, zerga baterakuntzaren araubidean dagoen taldea edo erakunde taldea osatzen duten erakundeetako edozeini dagokionez eta talde fiskaleko erakunde ordezkariarekin edo erakunde taldeko entitate nagusiarekin formalizatuta, talde osoarentzat izango ditu ondorioak.

7. Sozietateen gaineko zergaren (zerga baterakuntzaren araubidea) edo balio erantsiaren gaineko zergaren (erakunde taldeen araubidea) inguruko jarduketak taldeko menpeko erakunde guztiekin egin ondoren araudi honetako 14. artikuluko 4. paragrafoko h) letran aipatzen den eginbidea formalizatuko da. Eginbide hori taldea egiaztatzeko eta ikertzeko prozedurari erantsiko zaio.

8. Araubide berezi horiek egiaztatzearen ondoriozko aktak eta likidazioak taldeko erakunde ordezkariari formalizatuko zaizkio, zerga baterakuntzaren araubidean, edo entitate nagusiaren erakundeari, erakunde taldean. Erakunde horri egokituko zaizkio dagozkion erregularizazio eta likidazio proposamenak, eta horietan aipatuko dira taldea osatzen duten gainerako erakundeak eta horiek zerga zorraren erantzule solidario izan daitezkeela, araudian ezarritako baldintzetan.

Adostasuna, hala badagokio, taldea ordezkatzeko duen erakundeak (zerga baterakuntzaren araubidean) edo erakunde nagusiak (entitate taldearen araubide berezian) taldea egiaztatzeari buruzko akta sinatuta adieraziko da.

9. Sozietateen gaineko zergaren zerga baterakuntzaren araubidean, zehapen prozedurak hasteko kudeaketak erakunde ordezkariarekin egingo dira; berak bakarrik aurkeztu ahal izango ditu alegazioak eta errekursoak, bera baita arau hauslea.

Balio erantsiaren gaineko zergaren erakunde taldeen araubide berezian, zehapen prozedurak hasteko kudeaketak taldeko erakunde nagusiarekin egingo dira, baldin eta bera bada arau hauslea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuko 163. Nonies artikuluko zazpigarren paragrafoan ezarritakoaren arabera.

43 quater artikulua.- (2) (4) Delitua egin delako zantzuak.

1. Zerga administrazioak Ogasun Publikoaren aurkako delituaren zantzuak hautematen dituenean, erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunari pasatuko dio, edo espedientea Fiskaltzari igorriko dio, hargatik eragotzi gabe Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren VI. tituluan eta erregelamendu honetako artikuluetan ezarritako jarduketak.

2. Jurisdikzio eskudunak edo Fiskaltzak deliturik egin dela ikusi ezean, Zerga Administrazioak, hala dagokionean, beharrezko jarduketak edo prozedurak hasi edo jarraituko ditu, auzitegiek frogatutzat jotako egitateen arabera.

Ematen diren likidazioak eta administrazio zehapenak, bai eta likidazioak eta zehapenak ere, aldeztatik etenda geratzeagatik berriro betearazi behar direnak, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren V. tituluan ezarritako berrikuspen eta errekurso araubidearen mende egongo dira, baina ebazpen judizialean frogatutzat jotako egitateak ezin izango dira aurkaratu.

43 quinquies artikulua.- (4) Delituari lotutako likidazioa kalkulatzeko eta izapidetzea, Ogasun Publikoaren aurkako delituari lotuta eta lotu gabe dagoen kuotaren konkurrentzia egonez gero.

1. Zerga kontzeptu eta aldi beragatik Ogasun Publikoaren aurkako balizko delitu bati lotutako elementuak eta delitu horri lotu gabeko beste elementu batzuk bereizi behar direnean, bi likidazio proposamen egingo dira bereizita, Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorren 251.3 artikuluan ezarritakoaren arabera.

Ogasun Publikoaren aurkako delituarekin lotutako elementuek delitu penal hori zehazten duen iruzurrezko kuota zehazten duten egiaztatzeko, 251.3 artikuluko horretan a) letran ezarritakoa hartuko da kontuan.

2. Zergapekoak aukeratzen badu Arabako Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 251.3 artikulua azken lerrokadan aipatutako oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partidak proportzionalki aplikatzea, delituari lotutako likidazioan partida horiengatik gutxitu beharreko zenbateko zehatza zehazteko, partida horien zenbateko osoari zati baten ondoriozko koefizientea aplikatuko zaio. Koefiziente horretan honako hauek agertuko dira:

a) Zenbakitzailean, zerga oinarriaren gehikuntza eta gutxitzeen batura, batez besteko karga tasaz biderkatuta, eta kuotaren gehikuntzak eta gutxitzeak, guztiak ere Ogasun Publikoaren aurkako balizko delituarekin lotuta.

b) Izendatzailean, zerga oinarriko gehikuntza eta gutxitze guztien batura, batez besteko karga tasaz biderkatuta, eta kuotaren gehikuntza eta gutxitze guztien batura, Ogasun Publikoaren aurkako balizko delituarekin lotuta egon edo ez.

Kuota osoa likidazio oinarriaz zatitzearen emaitza hartuko da batez besteko karga tasatzat.

Koefiziente hori kalkulatzeko, oinarrian edo kuotan konpentsatu edo kendu beharreko partida guztien zenbatekoa utziko d alde batera.

43 sexies artikulua.- (4) Ebazpen judizialak delituarekin lotutako likidazioan dituen ondorioak

1. Tributu administrazioak delituarekin lotutako likidazioa eman duenean, kontuan hartuko dira ebazpen judizialak, bai eta, hala denean, Fiskaltzaren erabakiak ere, hurrengo paragrafoetan adierazitako moduan.

2. Zigor arloko prozesuan Ogasun Publikoaren aurkako delituagatiko kondena epaia ematen bada, honela jardungo da:

a) Prozesu penalean zehaztutako iruzurrezko kuota administrazio bidean likidatutakoaren berdina bada, ez da beharrezkoa izango egindako likidazioa aldatzea, dagozkion berandutze interesen eta errekaraguen likidazioari kalterik egin gabe.

Berandutze interes horien artean, delituari lotutako likidazioa eman zen egunetik salaketa edo kereila izapidetzea onartu dela zergapekoari jakinarazi arte sortutakoak eskatuko dira.

b) Prozesu penalean zehaztutako iruzurraren zenbatekoa ez badator bat, gainera edo azpitik, administrazio bidean finkatutakoarekin, delituari lotutako likidazioa zentzu horretan aldatu beharko da.

Kasu horietan, hasierako egintzak bere horretan jarraituko du, eta epaiaren edukia arabera zuzenduko da, prozesu penalean iruzurrezko kuota gisa finkatutako zenbatekora egokitze; horrek ez du eraginik izango egindako diru bilketaren baliozkotasunean, prozesu horretan berretsitako zenbatekoari dagokionez.

Horrez gain, berandutze interesak doituko dira, eta, nolana ere, delituari lotutako likidazioa eman zen egunetik zergapekoari salaketa edo kereila izapidetzeko onartu dela jakinarazi arte sortutako interesak eskatuko dira.

Arestian adierazitakoa gorabehera, bidezkoa izango da administrazio bidean eskatzea, hala badagokio, ebazpen judizialean frogatutzat jotako egitateen arabera, Ogasun Publikoari zor dakizkiokeen zenbatekoak, iruzurrezko kuotaren parte izan ez arren. Ondorio horietarako, eta beharrezkoa denean, egiaztapen eta ikerketa prozeduraren atzeraeragina gauzatu da zenbateko gehigarri horiek likidatzeko, agindu honen 4. paragrafoan adierazitako moduan.

Bestalde, prozesu penalean zehaztutako iruzurraren zenbatekoa administrazio bidean finkatutakoa baino txikiagoa bada, zerga araudian diru sarrerak itzultzeari eta bermeen kostua itzultzeari buruz ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira.

Tributu administrazioak hartutako erabakia, a) eta b) letretan aurreikusitako bi kasuetan, betearazteko eskumena duen auzitegiari, ordaintzera behartuta dagoenari eta prozesu penalean agertutako gainerako alderdiei helaraziko zaie, Prozedura Kriminalaren Legearen 999. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

3. Prozesu penalean ez bada deliturik ikusten zerga betebeharririk ez dagoelako, aurretiaz emandako delituari lotutako likidazioa deuseztatu egingo da, eta zerga araudian horretarako ezarritako arau orokorrak aplikatuko dira, diru sarreraren itzulketei eta bermeen kostuaren itzulketari dagokienez.

4. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean ezarritako kasuetan ez ezik, egiaztapen eta ikerketa prozedura delituari lotutako likidazio proposamena eman baino lehenagoko unera atzeratuko da, eta dagokion akta formalizatuko da honako kasu hauetan:

a) Espedientea itzultzea Ministerio Fiskalak, eta, horren ondoren, Zerga Administrazioak kereila bat jartzea jurisdikzio eskudunearan.

b) Salaketa edo kereila ez onartzea.

c) Largespen autoa.

d) Zerga betebeharra ez egoteagatik deliturik ez dagoela adierazten duen ebazpen judizial irmoa.

Kasu horietan, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 147. artikularen 1. paragrafoan aipatutako epea amaitu arte geratzen den epean amaitu beharko da prozedura, edo, azken hori handiagoa bada, 6 hilabeteko epean, egiaztapen eta ikerketa prozedura jarraitu behar duen organo eskudunak espedientea jasotzen duenetik zenbatzen hasita.

Prozedurari amaiera ematen dion likidazio berriagatik berandutza interesak eskatuko dira. Berandutza interesak zenbatzen hasteko data izango da, honako foru arau honetako 26. artikuluko 3. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorriz, baliogabetutako likidazioari egokituko zitzaion data berdina, eta interesa likidazio berria eman arte joan den unera arte sortuko da.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduraren iraupen epea betetzen ez bada, Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 147. artikularen 2. eta 3. paragrafoetan aurreikusitako ondorioak izango dira likidatu gabe dauden zerga betebeharrei dagokienez.

7. ATALA

KORRITUEN LIKIDAZIOA

44. artikulua.- Berandutza-korrituen likidazioa.

Norberaren borondatez ordaintzeko epealdia amaitzen denetik zerga-zorra erregularizatzen duen likidazioa egin arteko berandutza-korrituak eskatuko dira; kontuan izan behar dira artikuluko horretan adierazitako espezialitateak eta ez da eragotziko Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 147. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa. Berandutza korrituok erregularizazio proposamenean sartuko dira, bai eta prozeduraren ondoriozko administrazio egintzetan ere.

II. KAPITULUA

EGIAZTAPEN MURRIZTUAREN PROZEDURA

45. artikulua.- Prozeduraren izapidetza.

1. Egiaztapen murriztuaren prozeduran titulu honetako I, IV eta VI. kapituluetan ezarritako arauak aplikatuko dira, haren izaerarekin bat datozen heinean.
2. Egiaztapen murriztuaren prozeduretan ez dago zergapekoak ikuskapen planetan sartu beharrik. Prozedura horiek ezin izango dira burutu zergaldi euretako zerga-kontzeptu eurak egiaztatzeko eta ikertzeko prozedura izapidetzen ari delarik.

46. artikulua.- Prozeduraren amaiera.

1. Egiaztapen murriztuaren prozedura zergapekoari txostena jakinarazten zaionean amaituko da; txosten horretan ondokoak agertu behar dira:
 - a) Non eta noiz formalizatu den.
 - b) Sinatzen duten aktuarioen identifikazioa.
 - c) Jarduketetan aritzen den pertsonaren izen-abizenak, identifikazio fiskaleko zenbakia eta sinadura, behar denean, eta beraren izaera edo ordezkaritza.
 - d) Jarduketan xede den zergapekoaren izen-abizenak (sozietatea bada, sozietatearen izen osoa), identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza osoa.
 - e) Prozeduraren edukia bera, hau da, aztertu diren egitateak edo inguruabarrak; zehatz-mehatz azaldu behar dira dena delako zerga administrazioak egiaztatzeko eskatu duen zergapekoaren zerga-egoeraren alderdi guztiak.

f) Aktuarioek bidezko zat jotako erregularizazio proposamena, bai eta zerga arloko arau haustearen zantzuak ere.

2. Txostena zergapekoari jakinaraziko zaio eta hura eragin duen zerga kudeaketako prozedura ebazteko eskumena duen zerga administrazioari bidaliko zaio.

III. KAPITULUA

ZERGAPEKOA BERTARATU GABE EGITEN DEN ERREGULARIZAZIO PROZEDURA

47. artikulua.- Erregularizazio txostena.

1. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozedura ondokoak agertu behar diren txostenarekin amaituko da:

a) Non eta noiz formalizatu den.

b) Sinatzen duten aktuarioen identifikazioa.

c) Jarduketan xede den zergapekoaren izen-abizenak (sozietatea bada, sozietatearen izen osoa), identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga-egoitza osoa.

d) Prozeduraren edukia bera, hau da, aztertu diren egitateak edo inguruabarrak, hau da, zerga-betebeharraren froga aurrez eratuaren egitateak eta aplikatu beharreko Zuzenbideko oinarriak.

e) Aktuarioek bidezko zat jotako erregularizazio proposamena.

2. Txostena zergapekoari jakinaraziko zaio eta prozeduraren ondoriozko administrazio egintzak emateko eskumena duen zerga administrazioari bidaliko zaio.

3. Zergapekoa bertaratu gabe egiten den erregularizazio prozeduran foru dekretu honetako 42. artikuluan xedatutakoa aplikatuko da, aplikatu ahal den heinean.

IV. KAPITULUA

INFORMAZIOA LORTZEKO JARDUKETAK

48. artikulua.- Informazioa lortzeko jarduketak.

1. Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 90 eta 91. artikuluetan xedatutakoa gorabehera, ikuskapen eginkizunak dituzten administrazio organoek egiaztapen eta ikerketa prozedura edo egiaztapen murriztuaren prozedura abiarazten dutenean, zergapekoak dituen datu edo aurrekarietatik aktuarioen ustez beste pertsona eta

erakunde batzuen zerga-ordainketarako garrantzitsuak izan daitezkeen guztiak eskuratu behar dituzte; nolana ere, datu horiek modu orokorrean eskatzen badira, betebeharra bete den egiaztatu ahal izango da.

2. Informazioa lortzeko jarduketak datuak dituen pertsonarengana edo erakundera zuzenean jota egin daitezke edo, bestela, datuak edo aurrekariak aktuarioei bidaltzeko agindeia eginez.

3. Zehatzago, ikuskatzeko eskumenak dituzten organoek, zerga-kudeaketarako eskumenak dituztenek eskatuta, informazioa lortzeko jarduketak egin ditzakete Administrazioak likidazioak egiteko erabil ditzakeen era guztietako datuak, txostenak, aurrekariak eta frogagiriak biltzeko.

49. artikulua.- Informazioa lortzeko agindeiak.

1. Informazioa lortzeko jarduerak berehala has daiteke, baita idatzizko agindeirik gabe ere, baldin eta lortu beharreko datuek justifikatzen badute eta aktuarioek Zerga Administrazioaren esku egon behar diren agiriak, elementuak edo frogagiriak bakarrik aztertzen badituzte.

Bestela, agindeia bidali zaion pertsonari edo erakundeari hamar eguneko epea emango zaie, gutxienez, eskaturiko informazioa aurkezteko edo aktuarioei informazioa euren kabuz lortzen laguntzeko; hala egin ezean, zergen arloko arau-haustea egingo du.

2. Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuak, eta Ogasuneko zuzendari nagusiak baimena emanik, epaitegiei eta auzitegiei eskatu ahal die auzibideetan ezagutzen dituzten zerga-ondoredun datu guztiak emateko, sumarioko dilijentziak sekretupean mantenduta.

50. artikulua.- Banku edo kreditu trafikoan diharduten pertsona edo erakundeek informazioa emateko jarduketak.

1. Banku edo kreditu trafikoan diharduten pertsonak eta erakundeek beste batzuekin dituzten harreman ekonomikoetan eta finantza harremanetan ezagutzen dituzten zerga-ondoredun datu, txosten eta aurrekari guztiak eman behar dizkiote Zerga Administrazioari.

2. (4) Hain zuzen ere, pertsona eta erakunde horiek, ikuskapen ikuskizunak dituzten organoek agindeia eginez gero, ondokoak jakinarazi behar dituzte: kontu korrante, aurrezki gordailu, epeko gordailu eta mailegu eta kreditu kontuetako mugimenduak, eta zergapekoekin egin dituzten eragiketa aktiboak eta pasiboak.

Zerga administrazioak banku kontuen laburpenak euskarri informatikoan edo banku eremuan erabiltzen diren formatu logikoetan aurkezteko eskatu ahal izango du. Formatu horiek Espainiako Bankuen Elkarateak normalizatutako arauak edo koadernoak betetzen dituztenak izango dira.

3. Artikulu honetan aipatutako informazioa lortzeko jarduketetan, ikuskapen eginkizunak dituzten organoek Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 90. artikuluko 3. paragrafoan aipatutako kontuetako mugimenduen edo eragiketen berri emateko eskatzen dutenean soilik behar da Ogasuneko zuzendari nagusiaren baimena.

Honen ondoreetarako, baimenaren eskabidearekin batera aktuarioak txosten osagarria aurkeztu behar du, banku edo kreditu trafikoan diharduen pertsona edo erakundearen informazioa lortu beharraren arrazoiak azaltzen dituena, eta Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak ontzat eman behar du.

Ogasuneko zuzendari nagusiak eskabidea jaso eta hurrengo hamabost egunetan ebatzi behar du.

4. Agindeian ikertu beharreko kontuak edo eragiketak, ukituriko subjektu pasiboak eta ikerketaren erdiespena (epealdia) zehaztu behar dira.

Agindeian aipatutako epealdian kontuetan izan diren saldo aktiboei edo pasiboei buruzko datuak eska daitezke (mugimendu guztiak edo batzuk bakarrik), eta gertatu diren gainerako eragiketei buruzkoak ere bai. Halaber, jarduketek eskatutako datuei dagozkien agiriak eta aurrekariak har ditzakete.

Agindeian, jarduketak nola egingo diren ere zehaztu behar da, artikuluko honetako hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera.

5. Ebazpena onetsi eta Ogasuneko zuzendari nagusiak agindeiari baimena eman ondoren, pertsonari edo erakundeari jakinaraziko zaio.

Jarduketak egiteko bi modu daude: agindeia bidali zaion pertsonari edo erakundeari eskatutako datuak edo aurrekariak aurkezteko eskatu ziurtagiriaren bidez, edo pertsonaren edo erakundearen bulegora edo etxera joan behar diren agiriak aztertzerako.

Agindeia egiten zaion pertsonak edo erakundeak hamabost egun pasatu baino lehen aurkeztu behar ditu eskatutako datuak. Epealdi bera, gutxienez, pasatu behar da agindeiaren jakinarazpenetik jarduketak pertsonaren edo erakundearen bulegoetan hasi arte.

V. KAPITULUA

BALORAZIO JARDUKETAK

51. artikulua.- Balorazio jarduketak.

Pertsonen eta erakunde pribatu zein publikoen ondasunak, errentak, produktuak, eskubideak eta, oro har, ondareak baloratzeko jarduketaren helburua haien tasatzea edo haien balio aitortua egiaztatzea da; horretarako indarreko ordenamendu juridikoan ezarritako bitartekoetako bat erabili behar da eta Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 56. artikuluan xedatutakoari lotu behar zaio.

Ez dira joko balorazio jarduketatzat ondasunen, errenten, produktuen, eskubideen eta, oro har, ondarearen balioa kalkulatzeko foru arauetan edo haien garatu dituzten arauzko xedapenetan ezarritako erregelak zuzenean aplikatzen diren jarduketak.

52. artikulua.- Prozedura.

1. Ikuskapenekoak ez beste prozedura batzuetan egiten diren balorazio jarduketak txostenean dokumentatuko dira, eta bidezko dilijentziak ere egingo dira.
2. Baldin eta egiaztapen eta ikerketa prozedura bateko edo egiaztapen murriztuaren prozedura bateko jarduketetan balorazio jarduketak egin behar badira, aurreko paragrafoan xedatu bezala dokumentatu behar dira eta zergapekoari aktuarioak izapidetutako balorazio-espeditentearen berri emango zaio, eta emaitzak lehenengo jarduketaren ondoriozko akta edo txostenetan sartuko dira; nolahi ere, zergapekoak aktan edo txostenean formulatutako erregularizazio proposamenarekin ez dagoela ados adierazi ahal izango du eta ondoriozko administrazio egintzak aurkaratu ahal izango ditu, bere eskubideari komeni zaion guztia eta, batez ere, balorazioa bidegabekoa dela alegatuta.

VI. KAPITULUA

BETEBEHAR FORMALAK EGIAZTATZEKO JARDUKETAK

53. artikulua.- Betebehar formalak egiaztatzeako jarduketak.

1. Ikuskapen prozeduraren helburua zerga betebehar formalak behar bezala betetzen diren egiaztatzea Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 29. artikuluan aipatua denean, entzunaldia egingo zaio interesdunari, hamabost eguneko epean. Entzunaldiaren izapidea betebehar formalak egiaztatu eta gero egingo da. Entzunaldiaren izapidea amaituta, jarduketaren ondorioak dilijentzian edo txostenean azalduko dira, eta zergapekoari jakinaraziko zaio.
2. Entzunaldiaren izapidea amaituta, jarduketaren ondorioak dilijentzian edo txostenean azalduko dira, eta zergapekoari jakinaraziko zaio.

Prozedura dilijentziaren bidez amaitzen denean, berori zehapen espeditenteari prozeduraren ondorioz ekin bazaio gehituko zaio; horrez gain, beharrezkoa denean, igorri beharko da, zergak aplikatzeko beste prozedura bat hasteko.

(1) VII. KAPITULUA

EGIAZTAPEN MUGATUAREN PROZEDURA

54. artikulua.- (1) Prozeduraren izapidetza.

1. Alegazioak aurkezteko epea hasi baino lehen, Zerga Administrazioak arrazoituz gero, erabaki ahal izango du jarduketaren norainokoa handitu edo murriztea. Hau ere zergapekoari jakinaraziko zaio.

2. Ebazpena eman aurretik, jarduleak ebazpen proposamena, eta hala badagokio, likidazio proposamena jakinarazi beharko dio zergapekoari, 15 eguneko epealdian, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bidezkotzat jotzen dituen alegazioak aurkez ditzan Zergak Ikuskatzeko Bulegoan. Alegazioak aurkezteko izapidea ez da beharrezkoa, noiz eta ebazpenean jasota dagoenean ez dela beharrezkoa zerga egoera erregularizatzea, egindako egiaztapenaren ondorioz.

55. artikulua.- (1) Egiaztapen mugatuaren prozeduraren amaiera.

Egiaztapen mugatuaren prozedura honelaxe amaituko da: Arabako Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 133. artikuluko 2. paragrafoan jasotako edukia berori egiaztatu behar duen bulego kudeatzaileari igorri zaio, behin-behineko likidazioa egin dezan.

Halaber, txostenean jasotako datuak kontuan izanda, hala badagokio, kasuan kasuko zehapen espedienteari ekingo zaio.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengoa.- Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 214 eta 215. artikuluetan xedatutako ondoreetarako, Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuak espedienteetako egitateen berri duenean, eta egitateok zehapen espediente bananduaren bidez aztertu behar badira, Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruak eskumena du zehapen espedientea ebazteko.

Bigarrena.- Arabako tokiko erakundeek esan ahal izango dute zeintzuk diren foru dekretu honetan Ogasuneko zuzendariari, Zerga Ikuskapenerako Zerbitzuko buruari eta bestelako organoei eratzikitzen zaizkien jarduketak, prozedura edo tramiteen agintari edo organo arduradunak.

Hirugarrena.-

1. Foru dekretu honen 2. artikuluan xedatutakoarekin bat etorrira, Udal Zerga eta Katastro Zerbitzuko Administrazio bereziko maila ertaineko teknikari funtzionarioak (maila ertaineko titulua) izendatuko dira zerga ikuskatzaile aritzeko.

2. Zeregin horiek Arabako Lurralde Historikoko Zerga Ikuskatzailetzaren Arautegi Orokorraren 4.e), 51 eta 52. artikuluetan aipatutako balorazio jarduketak baino ez dira izango, ondasun higiezin eta eraikuntza industriarekin lotutako ondare elementuei dagokienez, baita landa elementuei eta nekazaritza ustiategietako eta nekazaritza industrietako ondare elementuei dagokienez ere.

Halaber, ikuskapen lanetan dauden beste funtzionario batzuekin batera, ikuskapen jarduketak ahal izango dituzte gauzatu ondoko jarduketak egiten dituzten subjektu pasiboen eragiketara eta etekin bolumena zehazteko.

a) Eraikinak saltzea eta eraikuntza materialen handizkako salerosketa.

b) Eraikuntza materialen txikizkako salerosketa.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Foru dekretu hau indarrean jarri baino lehen hasitako ikuskapen prozeduretan ordura arte indarrean egondako arauak aplikatuko dira harik eta prozedura amaitu arte.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Foru dekretu hau indarrean sartzen den egunetik aurrera indarrik gabe geratuko dira honen aurka dauden maila bereko edo apalagoko xedapenak, eta bereziki abenduaren 9ko 2043/1986 Foru Dekretua. Foru dekretu horren bidez Zerga Ikuskatzailetzaren Arautegi orokorra onartu zen.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.- Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari ematen zaio foru dekretu hau aplikatzeko ahalmena, bai eta dekretua aurrera eramateko behar diren xedapenak emateko ere.

Bigarrena.- Foru Dekretu honek Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera izango du indarra.

DIPUTATU NAGUSIA: Ramón Rabanera Rivacoba

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILEKO DIPUTATUA: Juan Antonio Zárate Pérez de Arrilucea

OHARRAK

- (1) 109/2008 Foru Dekretua, abenduaren 23ekoa.
(ALHAO, 1. zk., 09-1-2koa).
- (2) 68/2012 Foru Dekretua, azaroaren 20koa.
(ALHAO, 137. zk., 12-11-28koa).
- (3) 48/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa.
(ALHAO, 117. zk., 21-10-13koa).
- (4) 38/2028 Foru Dekretua, irailaren 27koa.
(ALHAO, 114. zk., 22-10-5ekoa).